

GAIA: ANOREXIA ETA BULIMIA NERBIOSOAK • ENPRESA BERRIAK  
SORTZEKO KULTURA EREITEN IKASLEENGAN • BELDURRAREN  
ARETOA • GALDEIDAZUE: RUBEN IGLESIAS • ITXARO BORDA

hh  
hik hasi

106

5 EURO • 2006KO MARTXOA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA

*ELKARRIZKETA*

**Itziar Nogeras**

"Pazientzian hezi behar ditugu haurrak"



# aurkibidea



8  
gaia

## ANOREXIA ETA BULIMIA NERBIOSOAK

Sarritan beldurra sortzen duten gaixotasunak dira biak, baina izu hori ezjakintasunak ere sortzen du. Hasteko ulertu egin behar dira, eta gero nola tratatu jakin. Gurasoen, lagunen eta eskolaren zeregina da, baina ez gaude bakarrik, elkarteak hor daude laguntzeko.



16  
elkarrizketa

## ITZIAR NOGERAS

13 urte daramatza Elhuyarren lanean eta egun Elhuyar Fundazioko zuzendari nagusiaren kargua betetzen du. Zientzia, teknologia, gizartea eta heziketa dira elkarrizketaren ardatz.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

ANOREXIA ETA BULIMIA NERBIOSOAK

16 elkarrizketa

ITZIAR NOGERAS

24 ekarpena

Ikasle etorkinak Haur Hezkuntzan (II)

Amaia Sesma, Pilar Hernandez eta Ima Ortega

26 esperientzia

Enpresa berriak sortzeko kultura ereiten ikasleengan. Lea-Artibaiko Azaro Fundazioa

28 esperientzia

Beldurraren aretoa

30 ekarpena

Bai eskolak euskalduntzeari!

32 galdeidazue

Ruben Iglesias

33 berriak

41 ...goza nazazu gehiago!

Eskola eta gazte hizkera

42 Atzeko atetik


Itxaro Borda

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 . Fax: 943/ 372 154; www.hikhasi.com;

Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Ainhoa Azpiroz Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ixiar Eizagirre Erredakzio batzordea: Mikel Estonba, Mari Karmen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Jaione Apalategi, Abel Ariznabarreta, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Felix Basurko, Aines Dufau, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urraza, Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Otaño eta Pruden Sodupe. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: TRAM•Grafik Maketazio, aurreinpresioa: Xangorin. Inprimategia: ANIZA S.A.L. Azaleko irudia: Itziar Nogeraz Elhuyarreko zuzendaria (Hik Hasi). Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2006-II-17). Kopurua: 3.500 ale

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

# editoriala martxoa

## *Ezjakintasuna eta zapalkuntza oso lotsagabeak dira*



**Antropologiak, kultura askotarikoak daudela eta bakoitza ez dela bestea baino gehiago edo gutxiago erakutsi digu. Eta, hezteko orduan, kultura bakoitzean adimena modu desberdinean azaltzen dela erakusten duten azterketa transkulturalak daude.**

Baionako epaile batek haur bat ikastolatik ateratzeko agindua eman du. Gurasoak bereizten ari dira eta gurasoetako batek haurra ikastolatik ateratzeko eta eskola publikoan sartzeko eskatu dio epaileari. Epaileak, berriz, eskaria onartzeko erabili duen arrazoa hauxe izan da: “ikastolek akulturazioa eragiten dute”.

Epaitezko orduan, alderdi interesak eta ikuspegi itxi eta menperatzailea izatea baino hobe litzateke zientzia desberdinen ekarpenak kontuan hartzea. Epaia eman behar denean, epaile bati eskatu dakioken gutxieneko baldintza dela iruditzen zaigu.

Antropologiaren zientziak, esaterako, kultura askotarikoak daudela eta bakoitza ez dela bestea baino gehiago edo gutxiago erakutsi digu. Eta, hezteko orduan, kultura bakoitzean adimena modu desberdinean azaltzen dela erakusten duten azterketa transkulturalak kontuan hartzekoak direla.

Epaileak ez al ditu ezagutzen zientzia horren ekarpenak? Haren ustez, estatu frantziarrean frantsesa da kultura transmititzeko hizkuntza bakarra, eta beste hizkuntzek eta kulturek akulturizatzeko besterik ez dute balio. Iritzi horri ez al diozue kutsu kolonizatzailea hartzen?

Izan ere, Frantzia mendetan izan da kolonizatzaile. Hor ikusi dugu Afrikako, Amerikako edota Asiako lurralde zabaletaz nagusitzen, hango aberastasunak xahutzen eta bertakoen hizkuntzak eta kulturak ordezkatzeko, Europako estatu gehienek antzera.

Napoleonen garaian Frantziako 15 milioi biztanletik hiru milioik bakarrik ezagutzen omen zuen frantsesa, Paris ingurukoak. Orduan izendatu zuten frantsesa hizkuntza ofizial bakartzat, gainerako hizkuntzak baztertuz. Hau da, beste kontinenteetako koloniatan egiten ari zena, bere muga barruan geratu ziren herriei aplikatu zien. Horretara-

ko, eskola erabili zuen bitarteko eraginkor gisa. Frantsesa irakaskuntzarako hizkuntza bakar modura ezarri, estatu frantziarreko guztiak frantseztuz.

Gaur egun, zein ikasle irteten da ikastolatik edo eskolatik frantsesik jakin gabe? Akulturizazioa ez al da alde-rantziz gertatzen? Iparraldeko ikasle gehienak ez al dira irteten eskolatik bertako kultura historikoa ezagutu gabe? Epaileak egin ote du hausnarketa hori? Kontuz ibiltzeko eskatu behar zaie, ezjakintasuna edota zapalkuntza oso lotsagabeak dira-eta.

Triste da beti horrela ibili beharra, beti zapaltzaileak eta zapalduak egon beharra. Askoz hobeto litzateke, Freirek zioen bezala, konpartitzea. “Inork ez daki dena, baina denok dakigu zerbait” zioen hark. Orduan, zergatik ez partekatu? Zergatik ez aberastu ezagutza horiek elkarrekin konpartituz? Errespetuzko egoeran oinarritu behar ko genuke heziketa, behingoz.

# kronika

Euskaldunduko duen hezkuntza eredu bat eskatu dute hainbat eragilek, hasi berri den matrikulazio kanpaina baliatuz. Ikasle Abertzaleak taldeak salatu duenez, "Euskal Herriko ikasleon % 38 soilik euskalduntzen da euskal eskoletan", eta "benetan euskaldunduko duen eredu bakar bat bilatzeko" eskatu diete hezkuntza agintariei. Euskal Herriak Bere Eskola ekimena, berriz, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko ordezkariekin bilduzen, "hizkuntz eredu sistemak EAEko legedia bera urratzen duela-eta", zer neurri hartu proposatzeko. EHBERen esanetan, Hezkuntza Sailak arazoari erantzunik ez diola ematen ikusirik, auzibideetara jotzea erabaki dute.



## Ikastolek deskulturizatu egiten dutela ebatzi du epaile frantses batek

Baionako Florent Szewczyk epailea ezagun egin da otsailean emandako ebazpenagatik. Guraso bi banatze prozesuan zirela, haurrak ikastolan jarraitu behar zuen edo ez gatazka iturri bihurtu zen. Epaileak eskola publikoan sartzea hobetsi du, eskandalua ekarri duen "arrazoi" bat emanez: ikastolek deskulturizazioa eta akulturizazioa eragiten dutela. Beraz, ikastolei leporatzen die Frantziako kultura eta hizkuntza kendu nahi dituztela haien tokian euskara jartzeko.

### Seaskaren erantzuna

Seaskak Frantziako Hezkuntza Ministerioak arautzen duen hitzarmena

betetzen duela nabarmendu du, eta ikasleek haren azterketak gainditzen dituztela eta hark agindutako ikasgaiak dituztela programan. Bestetik, Frantziako hezkuntza programak betetzeaz gain, ikastoletako haurrak elebidunak ere badirela gogorarazi du Seaskak, horrek pertsonaren garapenean duen eragina nabarmenduz. Seaskarentzat larriena ez da epailearen arrazoa: "Larriena da laido horiek errepikatzen direla eta sakoneko ideologia baten adierazle direla". Botere publikoei erantzukizunak eskatzeko dei egin diete, ekin-tzetan froga dezaten euskararen aldeko borondatea duten edo ez.

### Epailea salatu eta euskararen ofizialtasuna eskatu dute

Kontseiluak, ABk eta EAK, halakorik gehiago gerta ez dadin, euskararen ofizialtasuna aitortzeko eskatu diote Frantziari. Bestalde, Euskararen Erakunde Publikoko presidentek, Max Brissonnek, uste du haurra ikastolatik ateratzeko lehen ebazpen hori aise bota daitekeela atzera, helegitea jarritz. Izan ere, Brissonen esanetan, "hitz horietan oinarri sasi-teknikoak ageri dira, zentzurik gabekoak, eta argiki erakusten du epaile horrek ez duela ezagutzen tokiko errealitatea".

Ulermenik gabeko sentimendua itsua den bezala,  
hutsa da sentimendurik gabeko ulermena.

Nelson Goodman



## Hegoaldean etorkinen % 13 soilik doa D eredura

2004-2005 ikasturteko datua da, Lehen Hezkuntzako. Nafarroan, ikasle guztien artean % 24 etorkinak ziren; batez besteko kopuru hori izugarri jaisten da, ordea, D ereduan: ikasleen % 1,4 besterik ez baita etorkina. Euskal Autonomia Erkidegoan, berriz, etorkinen % 52 A ereduan aritu zen, % 28 B ereduan, eta % 20 D ereduan. Datuek diotenez, orain artean etorkinen hamar seme-alabetatik bik ikasten dute euskara.

## Administrazioen informazio eskasia

Joera horren arrazoa, askorentzat, etorkinei D ereduz ematen zaien informazio eskasa da, eta horretan administrazioek ardura handia dutela nabar-

mentu dute hedabideetan hainbat adituk eta elkartek. Sortzen-Ikasbatuaz taldeak salatu duenez, informazioa bereziki eskasa da Nafarroan, eta horren adibide da Nafarroako Gobernuak etorkinei zuzenduta ikastetxeetara bantzen duen liburuxka: "bertan euskara aipatu ere ez da egiten; existituko ez balitz bezala". Kalen Astiz Sortzen-Ikasbatuazeko koordinatzailearen hitzetan, "bestelako eruedetan pilatzen ari dira etorkinak, eta ikastetxe asko ghetto bilakatzen ari dira. Horrek ez dio integrazioari batere onik egiten". Euskara ikastea D ereduak soilik bermatzen duela ere nabarmendu zuen.

Mario Zapata soziologoaren esanetan, "Administrazioak erantzukizun handia du gai honetan". "EAEko Hezkuntza Sistemak egun duen hizkuntza ereduaren *eskizofrenia*" omen da, gainera, euskara ikasiko dutela bermatzen ez duen kausatako bat.

## Aurrematikulazio kanpaina, etorkinei zuzenduta

Sortzen-Ikasbatuaz taldeak jakinarazi duenez, aurtengo aurrematikulazio kanpaina etorkinekin lan egiten duten erakundeetara ere zabaltzeko ahalegina egingo dute, etorkinek D ereduaren berri izan dezaten.


Espainiako Auzitegi Konstituzionalak indargabetu egin du Euskal Funtzio Publikoko 1997ko lege aldaketa. Ikastolak sistema publikora igaro zirenean, irakasleak funtzionario bihurtzeko sortu zen legean aldaketa hori.

Espainiako Auzitegiak bi arrazoi eman ditu berau indargabetzeko: bata, Espainiako Gobernuari dagokiola funtzio publikoan sartzeko salbuespenak arautzea. Bigarren arrazoa da, beharrezko titulaziorik gabe funtzionario izatea ez datorrela bat prozesu horiek izan behar duten meritu eta gaitasun irizpideekin.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak adierazi duenez, lasai hartu du Konstituzionalaren ebazpena, ez baitauka inolako eraginik: "Gaur egun ez dago titulurik gabeko irakasle bakar bat ere. Ebazpen horrek ez du eraginik sistema publikoko irakasle bakar batengan ere".

# GAIA

## Anorexia nerbioso eta bulimia nerbioso





14 eta 21 urte bitarteko emakumetan % 4,5ak Elikadura Jokaeren Nahasteak ditu (gaixotasun horien artean aurkitzen dira anorexia nerbiosoa eta bulimia nerbiosoa). Emakume aurpegia duten gaitzak dira beraz, jasaten dutenen % 10 baita gizonezkoa.

Eskolak bazterrean utzi ezin duen errealitatea da beraz, batez ere DBH etapan, nerabezaroan hartzen baitute indar arriskuko jokaerek. Balioetan hezte eta nortasuna lantzea izan daitezke bizitzarako irakaspenik onenak.

# G

## Ulertzen ez ditugun gaixotasunak

Buruko gaixotasunak dira, eta ez modelo izan nahi duten neskatilen baraurako kapritxoa. Anorexia eta bulimia, sakonagoko oinaze baten isla edo sintoma dira: nortasun krisia, familia gatazkak, ziurtasunik eza, autoestimu baxua, norbere buruaz irudi txarra izatea... Gisa horretako faktore pertsonalez eta bizi esperientziaz gain, gaixotasun horiek harrapatzeko joeren artean, beste faktore batzuk hereditarioak dira uste dute.

Eta ezin ahaztu gure gaurko gizarteak Elikadura Jokaeren Nahasteetan duen eragina. Edertasunaren kanon argaldua helarazten zaigu publizitatearen bidez, edota telebistak "errealitate" gisa aurkezten digun imajinaren bidez (pantailan agertzen diren pertsona guztiek gizartearen gutxiengoari dagokion gorputza dutelarik), edota arropa tailu murritzuen bidez. Gizarte nagusi diren balioek ere (lehiakortasunak, gorputza gurtzeak arrakastaren giltza moduan, kontsumoak, sexismoak) gehiago laguntzen diote gaixotasunari, pertsonari baino.


### Eskola: ardurak eta beldurrak

Eskolak dimentsio bi ditu lantzeke alor honetan. Batetik, ikasgela errealitatea aztertzeke laborategi den heinean, ikasleei laguntzea gizarteko mezu subliminal horiek irakurtzen, eta kontsumoaren gizarteak gudan erein dituen idealei maskara kentzen. Eta bestetik, ikasgela norberaren nortasuna zizelkatzeko tailerra den neurrian, ziurtasun handiko pertsonak eraikitzea, gizarte kontsumista batetik jasotzen dituzten mezuekiko kritikoak izango direnak. Betiere, argi izanik eskola ez dela gizarteko arazo guztiak senda ditzakeen ospitalea: egia baita gai honetan ere eragin handiagoa dutela etxetik ja-



sotako balioek, zein kaletik, telebistatik edota internetetik edandako mezuek.

Bestalde, buruko gaixotasunak direnez, askotan irakasle zein gurasoek ez dute jakiten nola heldu arazoari naturaltasunez; hasteko, gutxi du benetan gaixotasun hauen berri, anorexia eta bulimiaz dugun irudia morboak eraikitako estereotipo desitxuratua baita. Irakasleek beldur bat izaten dute: gurasoei abisu emango al diet, nik ez dakit-eta seguru ikasle horrek halako arazoren bat ote duen? Eta hala balitz ere, zer egin? Nola jokatu gurasoekin? Zer egin ikasle horrekin, eta gainerako talde osoarekin? Galdera horiek hartuta, anorexia eta bulimiaren aurkako Euskal Herriko elkarteetara jo dugu. Beso zabalik hartu gaituzte, azpimarratuz irakasle zein gurasoek inolako kontsultarik egin nahi izanez gero, zalantzatan galdu gabe deitzeko elkarteetara.



## Anorexia nerbiosoaren eta bulimia nerbiosoaren kausak

**Kausak oraindik ez daude argi, baina hiru motatako faktoreen elkarrekintzari zor zaiola uste dute adituek.**

### FAKTORE ERAGILEAK

- Norbanakoarenak: loditasuna, perfekzio nahia eta autokontrola, heltzeko beldurra, autonomo izateko arazoak, autoestimua baxua...
- Genetikoak: elikadura arazo bat duen senide bat edukitzeak, familiako beste edonorengan gaixotzeko arriskua 2tik 20raino biderka dezake.
- Soziokulturalak: argaltasun idealak eta loditasunaren aurkako aurreiritziak, zenbait lanbide eta kirol, elikadura ohitura txarrak, gurasoak itxuraz gehiegi arduratzea, familiako gatazkak, komunikazio falta, neurritz gain babestea, estu hartzea...

### GAIXOTASUNA INDARTZEN DUTEN FAKTOREAK

- Nerabezaroa (aldaketa fisiko zein psikikoak), dietak, neurritz gaineko ariketa fisikoa, gorputzarekiko balorazio txarra, norbere buruarekin gustura ez egotea, estres egoera pertsonala, arazo emozionalak.

### GAIXOTASUNA MANTENTZEN DUTEN FAKTOREAK

- Gorputz irudiaz balorazio txarra izatea.
- Presio soziala.
- Estres egoerak berriz agertzea.



## Anorexia nerbiosoa

**Diagnostikorako irizpideak (Psikiatriako Amerikar Akademia. DSM-IV, 1994).**

- Adinari eta neurriari dagokion gorputz pisu normala mantentzeko edo minimotik gora pisatzearen uko egitea.
- Pisu hartzearen terrorea izatea, pisu idealaz oso azpitik egonda ere.
- Pisuaren eta gorputz irudiaren pertzepzio distortsionatua. Autoebaluazioan pisuak edo irudiak eragin desegokia izatea edota egungo pisuaren larritasuna ukatzea.
- Emakumeetan, hilekorik ez izatea, gutxienez hiru ziklotan jarraian.

## Bulimia nerbiosoa

**Diagnostikorako irizpideak (Psikiatriako Amerikar Akademia. DSM-IV, 1994).**

- Betekadak sarritan.
- Pisu irabazia saihesteko, konpentsaziozko jokaera desegokietara maiz jotzea, esaterako norberak eragindako gonbitoak, laxanteak hartzea, diuretikoak, baraua edo neurritz gaineko kirola.
- Betekadak eta konpentsaziozko jokaerak, gutxienez astean bitan gertatzen dira, hiru hilabeteetan zehar.
- Autoebaluazioan eragin desegokia du gorputzaren pisuak.
- Deskribatutako asaldurak ez dira anorexiako faseetan soilik gertatzen.





## Araba ACABE

### Jarduerak

- Kaltetuentzat laguntza tailerrak.
- Senitartekoentzat laguntza tailerrak.
- Hitzaldiak eta zabalkunderako ekintzak.
- Telefono bidezko laguntza eta lehen arreta.

### Kontaktua

- 945 242 578
- [araba@acabeuskadi.org](mailto:araba@acabeuskadi.org)
- [www.acabeuskadi.org](http://www.acabeuskadi.org)

## Bizkaia ACABE

### Jarduerak

- Kaltetuentzat: autolaguntza taldeak, elikadura tailerra, harreman tailerra.
- Senideentzat: autolaguntza taldeak, elikadura tailerra.

### Hezitzaileentzat

- Elikadura Jokaeraren Nahasteen Prebentzio Tailerra.

### Kontaktua

- 944 756 642
- [acabebi@telefonica.net](mailto:acabebi@telefonica.net)
- [www.acabeuskadi.org](http://www.acabeuskadi.org)
- [www.acabebizkaia.com](http://www.acabebizkaia.com)

## Gipuzkoa ACABE

### Jarduerak

- Informazio, harrera, orientazioa eta laguntza zerbitzua.
- Senide eta kaltetuentzat: bakarkako laguntza eta jarraipena, laguntza taldeak, topaketak.
- Ikastaro, hitzaldi eta tailerrak.

### Hezitzaileentzat

- Irakasle, orientatzaile eta gurasoentzat, ikastetxeetan (haiek eskatuta): elikadura jokaeraren nahastei buruzko informazio saioak edo hitzaldiak.
- Aisialdiko begirale, entrenatzaile, kale hezitzaile eta abarri zuzenduta: Elikadura Nahastei buruzko Osasunerako Heziketa Ikastaroak.

### Kontaktua

- 943 326 250
- [gipuzkoa@acabeuskadi.org](mailto:gipuzkoa@acabeuskadi.org)
- [www.acabeuskadi.org](http://www.acabeuskadi.org)



## Nafarroa ABAN

### Jarduerak

- Telefono bidezko laguntza.
- Harrera, orientazioa, informazioa, aholkularitza, jarraipena.
- Lehen bisita pertsonalizatuak.
- Laguntza taldeak.
- Hitzaldiak.

### Kontaktua

- 948 262 163
- [info@aban.biz](mailto:info@aban.biz)
- [www.aban.biz](http://www.aban.biz)

## “Beren buruan segurtasuna duten pertsonak eraiki behar ditugu”



**Garbiñe AGIRRE**

ACABE GIPUZKOAKO KOORDINATZAILEA

### Gaixotasun hauen sorreran, noraino eragiten du egungo gizarteak, eta noraino da erabakigarria bakoitzaren nortasuna eta bizi esperientzia?

Egia da neska hauek ez direla gaixotzen jokaera berezi batzuk dituztelako soilik, nesken artean gehiengoaren jarrera bera baita: “ni zaindu egiten naiz” esatekoa alegia, eta denak daude giro berean sartuta (tailu txikiko arropa dendak, “galtza hauek gizen egiten naute” gisako komentarioak...). Aldiz, gehiengoak jokaera bera izanagatik, nesken gehiengoak ez da gaixotzen. Zergatik? Jokaera horiek izateaz gain, gaixotzeko joerazko osagai batzuk eduki behar direlako, edota herentzia genetikoa, edota beste mila faktore ezagutu ere egiten ez direnak. Etxe berean, ahizpa batek anorexia izan dezake eta besteak ez. Eragin gehien nortasunak du. Dena den, familiaren eta inguruaren eragina ere oso garrantzitsua da.

### Nahiz eta eragin gehiena nortasunak duen, badira arazo horien eragileak izan daitezkeen arriskuko jokaera batzuk.

Noski. Emakumeetan dietak dira arrisku handiena dutenak. Normalean dieta batean hasi ondoren hasten dira gaixotzen. Gainera mediku, endokrinologo, dietista edota beste edozein espezialistak dieta jarri arren, horrek ez du esan nahi pertsona horrek gaixotasuna garatuko ez duenik. Nola jakin genezake dieta batetik hasita ez denik obsesio-natuko? Nola jakin dieta batetik ez dela arauak apurtzera helduko?

Mutilen kasuan, kirola da arrisku handiko faktorea gaixotasuna garatzerakoan.

### Kirol entrenatzaileek ere garrantzi handia dute, beraz.

Kirolak osasuna eta gozamina izan beharko luke, baina zoritxarrez gaur egun kirolak lehiakortasuna eta emaitza du helburu. Zein mezu eta nola bidaltzen diren mezuak kontu handiz landu behar da gazteekin jardutean.

### Anorexia eta bulimia gaixotasun modernotzat hartu izan ditugu, gaurko gizarteak sortutakoak zirelakoan, baina ez da hala...

Dirudenez lehen kasua XVII. mendekoa da, eta gizona zen. Urte guztioan gaixotasuna garatzen joan da, eta beti unean uneko kulturaren balio nagusiak hartuz. Iragan mendetan gaixotasun mota horiek mistikari lotuak zeuden, naturaz gaindikoari. Erljio gizon-

emakume haiek zeukaten profilak, pu-ruagoak izan eta zerua irabaztearren lurreko gauza oro baztertuz barau egiten zutenenak, antza handia du gaur anorexia nerbiosoa dutenekin. Gizarte hartan balio gorena naturaz gaindikoa izatea zen; gaur gorputza gurtzea da. Beraz, gaixotasuna bera da (beti arrakasta bilatzen baita), baina garai bakoitzeko idealetara egokituta.

### Arazoak edo gaitzak ere garatzen doaz, gizartearen garapenari lotuta.

Gaurko gizartearen estresatuago gaudela, presio gehiago dugu, lehiakortasun gehiago, erritmoa izugarria da eta oso zurruna, eta beraz deskontrolak ere indar hartzen du: erosketa konpulsiboak, drogak... Orain jendea gehiago deskompentsatzen da, ahal duelako: gure gizartearen kontsumoa eskura dugu (“Hirugarren Munduan” jendea ez da erosketa konpulsiboetan eroriko). Eta deskontrolak indar hartzean, gure gaurko gizartearen askoz bulimia gehiago dago anorexia baino (zeinak kontrol zorrotza eskatzen duen).

### Gaixotasuna mendetan garatu da, eta aldiz, bada beti mantentzen den alderdi bat: emakumeengan duela eragin gehien. Gaixoen % 90 da emakumea, % 10 gizona. Zer irakurketa egiten duzu horretaz?

Badirela osagai biologiko batzuk gizonak eta emakumeak desberdin egiten gaituztenak, eragin izugarria dutenak, eta oraindik ezagutzeke daudenak. Adituek jakin badakiten bezala,



depresioek gehiago eragiten diete emakumeei gizonen baino, eta zergatia oraindik aurkitu ez duten bezala (garunaren % 7 baino ez dugu ezagutzen), buruko beste gaixotasun mental hauek emakumeei gehiago eragitearen zergatia ere oraindik ez dakigu.

## Zer egin eskolan?

Balioetan hezi eta beren buruan segurtasuna duten pertsonak eraiki. Garrantzitsuena ez dadila izan itxura, eta desberdintasunak ez daitezela txartzat hartu. Elikadura Nahasteen prebentzioa egiten duzunean, drogen prebentzioa egiten ari zara, eta motor istripue-na. Pertsona lantzen ari baitzara. Baina gaixotasun horiek ez dira gelan oso bereziki ere landu behar, gaia gehiegi azpimarratuz.

## Balioetan hezte aipatu duzu. Baina hor eragin handiagoa dute etxean transmititzen diren balioek zein kalean jasotakoek.

Egia da, eta gure etxetan zera entzuten da, "halako izugarri argaldu da, eta begira zer guapa dagoen". Hori da gu guztion abiapuntua. Neskek orokorre-

an daukaten presioa izugarria da: ilusiozko eta fantasiako mundu batean bizi gara, non arrakasta kontsumoaren arabera den. Gaur dena egin daiteke (edo horixe da saltzen diguten fantasia): sudur luzea baduzu, "konpon daiteke", bularrik ez baduzu "jarriko dizkizugu"; mezua jada ez da "eta zer?". Ederki kezkatzen dira pertsona duduak eta ez zoriontsuak egiteaz, menpekoak izan gaitzen eta estetika zentroetara joateko beharra izan dezagun, petatxuak jartzeko. Pertsonak, zenbat eta segurtasun gutxiago izan, orduan eta kontsumo gehiago. Emakume zantzati guztien kontura negozio latza dago. Tutoreen egitekoa? Beren buruz ziur dauden gaztetxoak sortzea. Eta zaila da, irakasleei familiak eta kaleak egiten ez dutena eskatzen baitzaie. Munduaja oso lehiakorra da, oso zantzatiak gara, eta gurasoak ere hor sartuta daude (denok bezala).

## Gelan anorexia eta bulimiaren gaia ez dela modu berezian landu behar esan duzu. Zergatik?

Bi arrazoiengatik: batetik, gaixotasun horiek morbo izugarria dutelako,

**"Arriskuko jokaera larrienak, emakumeetan dietak dira, eta gizonetan kirola"**

eta morbo horrek gaixotasunari buruzko irudi irreal edo desegokia ematen duelako. Eta bigarren arrazoia da, gaia bereziki lantzea azkenean gaixotasunaren eragile suerta daitekeela, prebentzio bide baino. Adin horretan neskatilak argaltzeko ideiei oso adi daude, aldizkaritan dietak irakurtzen hasten dira, zer harrapatuko daude, eta hain justu anorexiari buruzko hitzaldi bat ematea edo antzeko ekintza bat egitea, izan daiteke bilatzen duten hori ahoko zuloan jartzea. Aldiz, prebentziorako hitzaldiak bai egin daitezkeela guraso eta irakasleei begira, detekzio azkar baterako.

## Gaixotasun horiek duten morboa aipatu duzu. Zer ondorio ditu morbo horrek?

Batetik, ez dela gaixotasuna ezagutzen. Izatez, ez dago kontzientziarik benetako gaixotasuna denaz: "modelo izan nahi duten neska aberaskumeen ñoñokeriak" balira bezala hartzen da, eta inondik ere ez da hala. Zeren gaixotasun hori dutenetan klase sozial guztietako neskek daude, kultura guztietakoak, familia mota guztietakoak, eta badira neska azkarrak eta ez azkarrak ere. Alegia, gaixotasun honetan ez da-



goela ez familia eredu bat, ez neska eredu bat, ez gizarte eredu bat ere. Buruko gaixotasun bat da, eta edonori gerta da-kioke (nahiz eta askotan gurasoen jarrera izan "hori ezin zaio nire alabari gertatu, nirea ez baita 'halakoa', ez dator bat estereotipo horrekin").

Eta buruko gaixotasun bat denez, kostea egiten da ulertzen eta normaltasunez tratatzen. Oso gauza naturalizat jotzen da gurasoei esatea "erreparatu ezazue zuen alabaren bistan, arbelakoa irakurtzea kostea egiten zaiola iruditu zait-eta". Baina zu gurasoengana gai honekin bazoaz, zera esanez erreakziona dezakete: "aizu, nire alaba oso ondo dago". Beti ezkututuko den gaixotasun batetaz ari gara, gerora lana aurkitzerakoan edo bikotea aurkitzerakoan, den bezala onartuko ez duten beldurrez. Badira anorexia eta bulimia kasuak ezkutatu dituzten eskolak ere, zentroaren irudia "ez zikintzeko".

### Orduan, prebentziorako zer motatako ekintzak egin daitezke eskolan?

Balioak lantzeaz gain, elikadura osasuntsuaren gaia landu daiteke normaltasunez (neurri batean arriskua ere badakarrena, jada kaloriez hizketan ari baikara). Eta gai horren barruan, elikadura arazoak ere ikusi. Baina normaltasunaren barruan landu: elikadura osasuntsua bezain garrantzitsua baita atsedeen osasuntsua edota harreman osasuntsua izatea lagunekin. Elikaduraren garrantzia maximizatzen ari gara. Gaur egun badirudi "zaintzea" jaten dugun kaloria bakoitza kontrolatzea dela, nahiz eta bitartean lanean estresatuta ibili edota harreman sozialak falta. Aztertzea da zer mezu ditugun barnerratuta "zaindu egiten naiz" horren atzean. Beraz, gaixotasun hau ez duen jendea ere, ez da hain desberdina. Hor gizarte osoa gaude sartuta.



### Irakasleak, gelan kasu bat dagoenean, nola tratatu behar du pertsona hori, eta nola ez?

Kasu bakoitza desberdina da. Irakasleak egin behar duena da pertsona hori ezagutu, bere konfiantza irabazi, eta ziurtasuna transmititzen saiatu. Ez jarri etiketak garaiz aurretik, eta agian, gurasoei zuzenean esatera joan beharrean, denbora hartu pixka bat aztertzeko: "zer gertatzen zaizu?". Baina ez zuzenean elikadura jokabidearekin sartuz, baizik eta "triste ikusten zaitut, zer gertatzen zaizu?", zentzu horretan. Eta beti errespetu handiarekin.

Konfiantza lortu eta laguntza bilatu, azalduz "nik ez dakit horri buruz eta goazen konfiantzazko norbaitekin hitz egitera ea zer egin genezaken". Ez da

**"Irakasleak, ustezko kasu baten aurrean, ikasleari konfiantza transmititu behar dio, ziurtasuna, eta lasaitasuna"**

irakasle guztien arteko bilera bat ere egin behar, normaltasun askoz gehiagorekin landu behar da. Elkartera hurbil daitezke.

### Kasuaren arabera, baina gurasoei esatera jo aurretik denbora hartzea komeni dela diozu. Zergatik?

Normalean alabek ez dute etxean kontatzen, eta egia da irakasleek beren ardura dutela adin txikiko horiekiko. Baina askotan, neskak zuri kontatzeak adierazten dizu baduela konfiantza bat zugar gurasoengan ez duena. Eta une horretan neskak behar duena da ziurtasuna eta lasaitasuna transmititzea, izututa dagoelako, oso galduta, eta sufritzen ari delako. Beraz, lasaitzen baduzu eta esan gertatzen ari zaionak izena eta irtenbidea baduela, eta laguntza bilatuko duzuela, jada arnastu bat ematen ari zara, eta lasaitasuna. Beti senari egin kasu: ikusten baduzu depresioak jota dagoela eta muturreko egoeran dagoela, hor ez dago denbora tarterik, eta zuzenean gurasoengana jo beharko da.

Elkartean egiten duguna da neskaekin hitz egiten saiatu, eta ikusi nola izango den errazen gurasoei esateko, zeren jakina, ardura haiei dagokie. Kontua da moduak erraztea eta formu-



larik zentzuzkoena aurkitzea: akaso neskari gogorra egiten saio esatea eta irakaslea izan daiteke gurasoekin hitz egin dezakeena.

## **Gaixoek ez dute nahi izaten etxean bere gaixotasunaren berri jakiterik. Zergatik?**

Gauza askoren batura da. Segurtasun eza, "ito egingo naute, nirekin sartuko dira, ez naute ulertzen". Eta halaxe da gainera, zeren berak ere ez du ulertzen zergatik jokatzen duen horrela. Ez ulertuak sentitzen dira, zeren askotan ematen zaien erantzuna da "bada, ez angustiarik izan", eta hori esatea alferrik da (beraiek angustia hori sentitu egiten dute-eta). Arazoa da loditzeko izua dutela, eta horregatik, egiten dutena da janaria murriztu, ezin dutelako kendu ikara.

## **Zer eragin izaten du taldean?**

Izugarria. Elkartera koadrilak ere etorri ohi zaizkigu, urduri: gaizki sentitzen dira, "eta nik zer egin behar dut?" dilemaren aurrean. Ikusten dute lagunak ez duela erreakzionatzen, pisua galtzen ari dela, izutu egiten dira, baina ez dakite irakasleari esan edo ez adiskidetasuna galtzeko beldurrez, bestetik gurasoak ere ezagutzen dituzte... Hemen egiten duguna da eurekin hitz egin, bizkarrean daramaten ardua hori askatzeko nolabait, eta gaixoa ekar dezaten saiatu. Zeren eurek lagun funtzioa bete behar baitute, ez dute izan behar ez polizia eta ez mediku. Lagunei aholkatuko nieke laguntza bilatzeko konfiantza transmititzen dieten lekuan (irakasleak, elkartea).

**Koadrila: arrisku gehiagoko talde bihurtzen al da?**

Zure lagunarengan ikusteak ez dizu gaixotzeko joera nabarmenduko, baina ez du txerto efekturik egiten ere.

## **Gurasoek nola erreakzionatzen dute, orokorrean?**

Hasieran ez dute erreakzionatzen. Gero, beldurra: gaitz mota horiek guztiek estereotipo txar horiekin guztiekin lotzen dituzte. Elkarrean laguntzen diegu ideiak argitzen, desdramatizatzen, sentitzen duten karga hori arintzen eta orientatzen. Gurasoak izututa sentitzen dira. Baina jakina, alaba izututa baldin badago ez dakielako nola moldatu gertatzen ari zaion hori guztia, gurasoei ziurtasuna eskatuko die. Ziurtasuna, nahiz eta hanka sartu. Etxean trauma bat egiten dela eta denak historiko jarri direla ikusteak ez dio laguntzen alabari. Baina erreakzio hori kontrola ezina da: gurasoak pertsonak dira, alaba bezalaxe. Elkartetik pasatzeak asko lasaitzen ditu, gauzak beste modu batera ikusarazten dizkiote, nahiz eta oso gaizki pasatzen duten.

**"Ikasgelan ez dira gaixotasun hauek oso bereziki landu behar, gaia gehiegi azpimarratuz, hori gaixotasunaren eragile suerta daiteke-eta, prebentzio bide baino"**

## **Eta zer egin gainerako gurasoekin?**

Egoera desdramatizatu, ardua daitezzen baina obsesionatu gabe. Adin horretan etxe guztietan eztabaidatzen da ez dutelako babarrun platerkada jan nahi eta ez dakit zer jan nahi dutelako. Hori normala da eta arduratu egin behar da, baina obsesionatu gabe, eta susmorik haizatu gabe: pista batzuk ikusten badituzu eta hori transmititu egiten baduzu, alabak bere funtzionatzeko modua are gehiago zainduko baitu.

## **Irakasleen beste kezka bat hau da: zer egin ikasle batek bulimia badu eta jangelara badator, edota txangoa egin behar badugu eskalatzea bezalako aktibitateak egiteko.**

Gaixo dagoen pertsona bat da. Irakasleek arduradun gisa gurasoekin hitz egin behar dute eta argi eta garbi azaldu zer ekintza egingo dituzten, eta behar balitz idatziz jarri, argi utziz gurasoak direla erabakitzen dutenak eta azken ardua dutenak. Gurasoak baitira erabakia hartu behar dutenak. Irakasleek ezin dute ikaslerik baztertu, ez taldetik atera, ez diskriminatu.

## **Gurasoei arazoa planteatzerakoan, irakasleek beste beldur bat ere izaten dute: "eta ez bada anorexia ala bulimia? Eta erratu banaiz, zer?"**

Bada, gurasoen aurrean kendu beldur hori, "alabari bista begira iezaiozu" esaten duzunean bezalako normaltasuna adierazi behar duzu-eta. Eta kontu asko jarri tratuan, gurasoek zera esanaz erreakziona dezaketelako: "eta zu nor zara nire alabak halako gaixotasun bat duenik esateko?". Eta laguntzarik beharrez gero, etor daitezela gugana.

# itziar nogeras

## ELKARRIZKETA

Euskal filologoa eta Elhuyar-eko zuzendaria

// Gaur inoiz baino gehiago,  
pazientzian hezi behar ditugu  
haurrak, eta ikusarazi edozer  
lortzeko prozesuak, esfortzua  
eskatzen duela //



# itziar nogeraz

E

//  
Ikerketari begira eta zientzia arloko kultura horri begira, bokazioa da adituek faltan sumatzen dutena. Gero eta zientzialari gutxiago dago, edo gazteen artean behintzat ez da ikusten halako interesik.

//

Euskal Filologian lizentziatua.

Lanean gazte hasi zen, euskaltegian eta euskalduntze munduan; 8 urte inguru eman zituen arlo horretan, kargu batean eta bestean.

Elhuyarren 13 urte daromatza. Hainbat arlotan aritu da: hiztegegintzan hasi zen, lan munduari lotutako proiektuetan aritu zen gero (euskalduntze teknikoan, enpresa planetan). Elhuyarrek Aholkularitza enpresa sortu zuen, eta 3 urtean izan zen bertako kudeatzaile. Egun Elhuyar Fundazioko zuzendari nagusia da.

1966an Donostian jaioa, bi seme-ren ama.



**Munduan, zientzian, zer eremutan egiten da inbertsio gehien? Zerk du interesa, eta zerk ez?**

Ikerketa mailan inbertsio gehiago egiten da mundu garatuari begira, zoritxarrez, eta munduaren beste zatia begira tarteka, geure burua zuritzeko. Ez ditut datuak ezagutzen, baina gerrako armetarako seguruena dezente ikertuko da. Azkenean interes ekonomikoek agintzen dute. Gauza bat baita esaten dena, eta bestea zenbat ikertzen den hor benetan. Energia berriztagarriak denen ahotan daude, baina seguruena, inbertsio kopuruak ezagutuko bagenu, galtzen aterako lirateke arlo horiek.

Zer interesatzen den gaurko munduan, azterketa batzuk badaude. Herrialde ez garatuetan, ez dakit galdetu ere egin diegun. Europa mailako azterketek diotenez, jendearen interes edo kezka nagusia osasuna da. Zientziara etorrita, Eurobarometroaren datuetan 1995etik hona jaitsi egin da zientziari buruzko interesa. Arrazoiei begira, % 32 inguruk dio ez duela ulertzen; beste horrenbestek dio ez zaiola axola; eta % 16k esaten du ez duela inongo interesik (gainera talde horretan gazte asko dago).





**Orduan gero eta amildegi handiagoa al dago zientzia ikerketaren eta gizartearen artean? Ala justu kontrakoa da, zenbat eta informazio gehiago izan, orduan eta jakitunago gara zientzian gertatzen ari denaz?**

Oso informatuta gaudela uste dugu, baina gero hegaztien gripea dela-eta, Gipuzkoan gripearen aurka txertoak bukatu egin ziren, nahiz eta txerto horrek ez duen horretarako balio. Hor badaude kontraesanak gizartean. Zulo bat badago. Agian beldurrak garamatza, baina azken batean benetan informatuta ez gaudelako da, edo behintzat hor nahastu egiten dira beldurrak eta informazioa.

Bestetik, zientzia gizartera hurbiltzeko kezka instituzionala orain dela gutxiakoa da; ekimen pribatuak izan dira gehiago, bai mundu mailan, bai Euskal Herrian. Elhuyar da horren adibide: 33 urte daramatza dibulgazio lanean. Beraz, zientzia gizartera hurbiltzeko programa eta politika horien emaitzen zain egon beharko dugu oraindik.

Badago beste kezka bat ere, asko aipatzen dena azken urteotan, hezkuntza ikuspegitik, besteak beste: zientziarako dagoen boka-



ziofal-

ta. Ikerketari

begira eta zientzia arloko kultura horri begira, bokazioa da adituek faltan sumatzen dutena. Gero eta zientzialari gutxiago dago, edo gazteen artean behintzat ez da ikusten halako interesik. Teknologiarik lotutako ikasketetan (ingeniaritzak kasu) agian ez da jaitzierarik egon, baina zientzia arlokoetan bai, handia.

**Hegaztien gripearen eta txertoaren kasura itzuliz, gizartean bada sarri samar sortzen den inpresio bat: azkenean ez dakizu komeni zaizun ala ez (txerto bat, kasu), aldekoa eta kontrakoa "frogatzen" duten ikerketak nahi adina daudelako.**

Hor behar dena hau da: gizartea gero eta irizpide gehiagoko pertsonaz osatutakoa izatea. Jakina, informazioak ere egokia izan behar du. Baina jendeak jakin behar du informazioa kontrastatzen, azkenean jendearen esku baitago erabakiak hartzea, txerto bat jarri behar duen edo ez erabakitzea (noski, baita berari gomendatzen dion horren esku ere).

Infor-



ma-  
tura

egotea ez da aski, gero eta irizpide gehiagokoa izatea da gakoa, kriterioz erabakitzen jakitea, eta hori eskolatik eta txiki-txikitatik lantzen hasi behar litzateke. Gaur dauden baliabide guztiekin, hori da benetan lortu behar genukeena.

**Informazio saturazioaren ondorio ere izan daiteke aukeratzen ez jakite hori.**

Gaztetxoak Internetekin txoratzen dauden honetan, bi alderditan esku har dezake gizakiak (eta hor hezkuntzak ere zeresan handia du). Batetik, balioetan hezi, informazioa benetan bilatzen jakiteko eta topatzen duten informazio hori modu kritikoa jasotzeko. Hala, informazio saturazio hori ez genuke hain modu txarrean ikusiko, baizik eta aprobetxatu egingo genuke, benetan behar duguna eskuratzeko.

Beste alderdia da (seme-alabekin ikusten dut-eta!), pazientzia lantzea, bi-



tar-

teko

proze-

suan.

Gaur emaiten du behar duzun informazioa berehala topatuko duzula, eta hori aberia bat da, ze Interneten sartu eta benetan behar duzuna automatikoki bilatzea zaila da askotan. Beraz oraindik ere, eta inoiz baino gehiago, pazientzia hezi behar ditugu seme-alabak edo ikasleak, eta ikusarazi lan bat egiteko, erabaki bat hartzeko, edozer lortzeko, aurretik sekulako prozesua eramane beharra dagoela, eta esfortzua eskatzen duela. Uste dut horretan gaur gabezia handia dagoela, eta ni behintzat asko kezkatzen nauen gaia da, ze denak dirudi bat-bateko, eta benetan ez da hala, eta gainera berehala frustrazioa sartzen zaie.

Ikerketa edo berrikuntza mailan, Interneten bilaketa sistemak hobetu beharko dira, inteligenteagoak izan daitezten, zaborra alboratzeko eta beste. Uste dut jadanik horretan fintzen badabiltzala.

**Hedabideek zientzia munduko albisteak nola ematen dituzten ikertu duzue berriki. Zer ondorio nabarmenduko zenuke?**

Kalitatea neurtu dugu, eta ikusten da 5eko nota oso justu gainditu dutela prentsa idatziko komunikabideek. Kalitatea neurtzeko parametro batzuk hartu ditugu (berria kontrastatu gabe zuzenean sartzen ote den egunkarian, sinatuta dagoen...). Ikerketaren arabera, oraindik hobetzeko asko dago. Zientzia albisteen atalean El País-ek, adibidez, egin du dezenteko inber-

106. zenbakia. 2006ko martxoa • hik hasi • 19

# itziar nogeraz

E

// Informatuta  
egotea ez da aski,  
gero eta irizpide  
gehiagokoa izatea da  
gakoa, kriterioz  
erabakitzen jakitea,  
eta hori eskolatik eta  
txiki-txikitatik lantzen  
hasi behar  
litzateke

//

tsioa, eta bertako kazetari bati elkarrizketa eginda justu horixe aipatzen zizun: komunikabideetan ere lehentasunetan eduki behar dela zientzia albistekak kalitatez ematea, edo behintzat horren aldeko apustua egiteko erabakia hartu behar dela. Era guztietara, zientziaren presentzia aurten iaz baino handiagoa izan da aztertu ditugun egunkarietan. EAEn argitaratzen direnetan % 1etik % 2,42ra igo da. Eta horrez gain, esan beharra dago euskararen presentzia txukuna Berriak bakarrik bermatu duela.

**Elhuyar eta horrelako zientzia aldizkari espezializatuok gaur sekula baino irakurle potentzial handiagoa duzue, ala, eskaintza horren zabala denez, zaila da irakurle potentzialengana iristea?**

Eusko Jaurlaritzak 2005ean ikerketa bat egin zuen, "Irakurketa ohiturak aisialdian" izena duena, eta datu nagusiak hauek dira: EAEn % 90ek esaten du aisialdian prentsa, aldizkari eta komikiak irakurtzen dituela, eta horietatik % 60k egunero edo ia egunero irakurtzen du. Aldizkariak irakurtzen dituztenak EAEko biztanleen % 54 dira; % 35ek informazio orokorreko aldizkariak irakurtzen ditu, beste hainbestek prentsa arrosa, % 14k zientzia eta kultura dibulgaziokoa, % 11k kirolekoak, eta gainerako espezializatuak irakurtzen dituztenak % 10 baino gutxiago dira. Hiz-



kuntzei dagokienez, % 99k gaztelaniaz irakurtzen du, eta % 8k euskaraz.

Gure datuak ezagutzea oso zaila da, baina uste dugu gure aldizkaria irakurtzen dutenen kopurua handia dela, konparatiboki, errealitate orokor hori hartuta. Beste datu kuriosoa bat sexuarena da: gurea bezalako aldizkariak oraindik gizonezkoek irakurtzen dituzte gehien. Eta adinaren arabera, 30-45 urte artean daude gehienak.

**Zein dira dibulgazioan gizartera iristeko dituzuen zailtasunak?**

Funtsean gauzak komunikatzen jakin behar da, adituak ez direnentzat azaltzen ikasi behar dugu. Zailtasuna hor dago, zientzialariak bere gaia edo nork ulertzeko moduan azaltzen jakitea, edota alderantziz, kazetari batek jakitea alor bat hartu eta garbi eta zehatz azaltzen. Elhuyarren denetik dago, baina gehienak zientzialariak dira, hizkuntza berri hori lantzen ari direnak, azkenean hizkuntza berri bat baita erabili behar duzuna pertsona bat zientzia-



ri buruzko berria irakurtzera erakartzeko. Teknikak eta taktikak daude, eta hizkuntza berri horretan ahalegin berezia egiten ari gara. Izan ere, topiko asko dago (zientzia ulertzen zaila dela, astuna dela...). Topikoak muga dira, itxi egiten zara, eta igual ez duzu irakurri ere egiten zientziari buruzko berri bat. Aurreiritzi eta hesi horiek, batzuetan psikologikoak ere badirenak, gainditu behar ditugu guk gizartearengana iristeko.

Bestetik, ulertzen dugu komunikabideek ezin dutela alor guztietan oso espezializatuta egon. Irtenbide bat izan daiteke komunikabideek alor bakoitzean espezializatuta daudenekin elkarlana egitea. Hori da Elhuyarrek egin nahi duen ekarpena: zientzia arloan espezializatuta egonik, gure hedabideak izateaz aparte, beste komunikabideekin kolaborazioak egiten ditugu (prentsa, irrati, telebista). Adibide bat jartzeko, guk *Teknopolistelebista* saioa egiteaz gain, telebistarentzat astero berri bat prestatzen dugu informatiboetarako.

**Eskolan, zientziak ikasterakoan lehen irakasleak ahoz ematen zuen informazio hori, gaur, askoz bide eraginkorragoetatik lantzeko hamaika baliabide daude (zientzia museoak, ikus-entzunezko materialak, esperientziazioa...).**  
**Beraz, gaur nola planteatu beharko luke eskolak zientziaren ikas-prozesua?**

Aurretik, esan beharra dago guk baino askoz hobeto irakasleek dakitela. Bakarrik aipatuko dut oso garrantzitsua iruditzen zaigula zientzia dibulgazioko baliabide horiek denak benetan aprobetxatzea, eta irakasleak bakarrik ez sentitzea. Gure esperientziaren arabera ("Zernola" olinpiadetan ikastetxeekin harremana baitugu), batzuetan oso bakarrik aritzen dira irakasleak. Halako gauzetan norke parte hartzen duen ikusi, eta izaten da irakasleak motibazio izugarria daukalako alor horretan. Ona da horren irakasle apasionatuak izatea, gero emaitzetan ere nabaritu egiten baita. Baina kontua da tekno-



logia berrietan edo beste edozein alor berriren aurrean, ikastetxeak berak eman beharko liokeela bultzada gaiari, modu babestuagoan, eta ikasleak benetan murgildu esperimendu birtualetan eta halako esperientzietan.

Beste kezka bat ere badago, hezkuntzarekin lotuta: zientzia gaiei eskaintzen zaien ordu kopurua murrizten ari dela. Gero eta dibertsifikatuago daude ikasgaiak, eta horrek ere maila pixka bat jaisteko arriskua dakar.

**Zientziak zer-nolako ikasleak eskatzen dizkio eskolari, bihar ikerlari onak izan daitezten?**

Jakin-min handiko pertsonak eta kritikoak behar dira. Horrek ez du zientziarako soilik balioko, seguruenera.

**Zientzia orain artean gizonen mundua izan dela diozu. Hori zein alderditan nabaritzen duzu?**

Ez dakit zuzenki erantzuten. Agian zientzian emakumeek parte-hartze handiagoa izan balute, une honetan gizatiartuagoa legokeen ez dakit. Zeharbide batetik joanda, bururatzen zait edozein zientzia sistemak bilatzen duela oreka, hori da zientziaren lege bat. Beraz, espero dut honetan ere oreka lortzea denbora gutxian. Datuek hala diote. Elhuyarren bertan, 100 pertsona inguru gabilta lanean, eta horietatik 70en bueltan emakumeak gara. Jakina, zientzian orokorrean oraindik desore-

ka handia da, botere arrazoiengatik. Baina oreka lortzean aldaketak seguru sumatuko direla, eta hoberako izatea espero dut.

**Zientzia eta euskara. Aurreratu dena asko da. Gaur non dituzue zuen kezka handienak?**

Ikerketan eta zientzian ingelesa da nagusi. Egun Europan ikerketa estrategiko mailan gero eta gehiago aztertzen ari diren arloa "Ingurumen adimena" delakoa da; alegia, teknologiak tramankulu izan beharrean nola bihurtu zure eguneroko bizitzan integratutako zerbait (etxera heldu eta telebistari "piztu zaitez" esatea, eta beste). Beraz, ingelesez hitz egin beharko diegu makinei, edo nola egingo diegu? Hor apustu handi bat dago eta hobetu dezakegu, baina oraindik ikusten duguna da maila instituzionalean ez daudela konbentzitura. Nik mezu hori zabaldu nahi dut: hor badela arlo bat sinistu behar duguna, eta konplexurik gabe jokatu, benetan inbertituz ikerketa lerro horietan aurreratu dadin, eta ez dezagun esan "orain berriz zerotik hasi behar dugu ez dakit zer tresnak uler dezan esaten diodana". Guk esparru horretan 3 urte daramatzagu ikerketa proiektu batean, eta orain artean Eusko Jaurlaritzak kontuan hartu izan du eremu hori (proiektua Industria Sailak babestu du zati batean); aurrera ere kontuan hartzen jarraituko duela uste dugu.

# ELHUYARen ikasmaterialak

GAIA	ATALA	IZENBURUA	ADINA
<b>HIZTEGIAK</b>			
<b>Hiztegi elebidunak</b>		<i>Euskara-Gaztelania / Castellano-Vasco Euskara-Frantsesa / Français-Basque Euskara-Errusiera / Errusiera-Euskara</i>	
<b>Euskara hiztegiak</b>		<i>Euskal hiztegi modernoa Sinonimo eta antonimoen hiztegia</i>	
<b>Hiztegi teknikoak</b>		<i>Enpresa kudeaketa, Energia, Geologia, Gizarte lana, Ingurugiroa, Munduko hegaztiak, Munduko ugaztunak</i>	
<b>MULTIMEDIA</b>			
<b>CD didaktikoak</b>		<i>Piratekin matematikaren munduan 1, 2 eta 3 Piratekin hizkuntzaren munduan 1, 2 eta 3 Animaliak Nire lehen entziklopedia Gure ingurumena Jolastuz ikasi. Geografia Kantuketan Nire gorputza barrutik Zeu idazle!</i>	5-8 urte, 8-10 urte, 10-12 urte 5-8 urte, 8-10 urte, 10-12 urte 5-9 urte 6-9 urte 12 urtetik gora 6-12 urte 8-14 urte 6 urtetik gora
		<i>Urpeko Erreinuan</i>	6-12 urte
<b>Aisialdiko CDak</b>		<i>PUZZLETEK Oroimenaren lapurrak Gipuzkoa zure esku</i>	14 urtetik aurrera 13 urtetik gora Adin guztietarako
<b>Kontsultako CDak</b>		<i>Euskal Herriko soinu-tresnak Euskal Herriko fauna</i>	12 urtetik gora 12 urtetik gora
<b>Hizkuntza lantzeko CDak</b>		<i>HITZMIX Hiztegi elektronikoa: e-g / c-v Jolastuz ikasi. Aditz laguntzailea</i>	Adin guztietarako 12 urtetik gora
<b>Sareko produktuak</b>		Unitate praktikoak: LH materiala on line ondorengo helbidean: <a href="http://www.elhuyar.org/">www.elhuyar.org/</a>	
<b>DVDak</b>		<i>Euskal Herriko aurpegiak</i>	Adin guztietarako
<b>Bideoak</b>		<i>Teknologiaren gailurrean. Teknopolis I, II, III, IV eta V</i>	Batzilergoko eta Lanbide Heziketa- tako eskola-jardunerako ere la- gungari aproposa.
<b>LIBURUAK</b>			
<b>Kontsulta eta zientzia- dibulgazioko obrak</b>			
<b>DBH eta Batxilergoa</b>	Geografia Giza zientziak Informatika Matematika Mekanika Natur zientziak Teknologia elektrikoa		
<b>Lanbide Heziketa</b>	Zehar-lerroak Administrazioa Elektrizitatea eta elektronika Elikagaigintza Fabrikazio mekanikoa Kimika Nekazaritza eta abere-hazkuntza Ostalaritza Osasuna Zurgintza eta altzarigintza		
<b>Unibertsitatea</b>	Enpresa-zientziak Giza zientziak Ingeniaritza Kimika Matematika Osasuna Teknologia elektrikoa Teknologia mekanikoa		
<b>ZIENTZIETAKO KOMUNIKAZIOA</b>			
Elhuyar Zientzia eta Teknika <b>aldizkaria</b>		Interneten ale atzeratuak ikusteko aukera: <a href="http://www.zientzia.net/elhuyar.asp">www.zientzia.net/elhuyar.asp</a>	Zientzia eta teknikari buruz hilerio argitaratzen den aldizkaria. 16 urtetik gora.
<b>Zientzia.net</b>		<a href="http://www.zientzia.net">www.zientzia.net</a>	Zientzia eta teknologiari buruzko euskal web gunea. 14 urtetik gora.
<b>Zernola.net</b>		<a href="http://www.zernola.net">www.zernola.net</a>	Armix-en eskutik, 8-14 urte bitarteko gaztetxoentzako zientzia-ataria. Artikuluak, jokoak, postalak, foroak, ZN txat-a eta gaztetxoek beren lanak, argazkiak, bideoak, proiektuak eta beste argitaratzeko txokoa. Gainera, irailetik maiatzera, ZN Olinpiada: DBH1 eta DBH2 mailetako ikasleentzako zientzia- olinpiada.

## Ikasle etorkinak Haur Hezkuntzan (II)

**Amaia SESMA, Pilar HERNÁNDEZ eta Ima ORTEGA**

GASTEIZKO BERRITZEGUNEKO KULTURA ARTEKO  
BATZORDEKO KIDEAK

### Ikasle etorkina eskolan eta gelan

Lehendabiziko artikuluan ikasle etorkinen familiak eta eskola izan genituen hizpide. Oraingoan ikasle etorkin horiek gelan nola artatu aztertuko dugu.

### Haur Hezkuntzako ikasle etorkina eskolatze prozesuaren aurrean

Lehendabizi, hemengo ikasleen eta ikasle etorkinen artean egon daitezke-

en antzekotasunak eta desberdintasunak ikusiko ditugu, eta ondoren, horren ondorioz sortzen diren beharrak aztertuko ditugu. Ikus ditzagun beheko taulak.

### Prozesuan sortzen diren beharrak

Aurreko guztia kontuan izanda, hona hemen sortzen diren beharrak:

### Harrerako gizartearen kultura ezagutzeko eta horri egokitzeko ikasleak duen beharra

Arestian esan dugun bezala, ikasle etorkinak jatorrizko ingurune kulturean ikasitakoa —familiaren balioak, ohiturak, eskolarekiko irudia eta abar— eta harrerako gizartearen aurki-



tzen duena oso desberdinak izan daitezke. Guretzat oso arrunta den edozein gauza edo jokaera ezohikoa izan daiteke ikaslearentzat nahiz familiarentzat. Hori dela eta, batzuetan pentsa dezakegu guk proposatzen duguna ulertzeko edo ikasteko motelak direla. Horregatik, denbora eta aukera eman behar diegu bai familiari eta bai ikasleari jatorrizko kultura eta hemengo kultura norberaren identitatean integratzen joateko.

ZERTAN DIRA BERDINAK IKASLE ETORKINAK ETA HARRERA GIZARTEKO IKASLEAK?	ZERTAN DIRA DESBERDINAK IKASLE ETORKINAK ETA HARRERA GIZARTEKO IKASLEAK?
<p><b>Familia batean bizi dira, eta hor:</b> Beren identitatea eraikitzen hasi dira, lehenengo sozializazioa egin dute, mundua balio zehatz batzuen arabera interpretatzen hasi dira, zenbait gauza ikasi dute, hizkuntza bat erabiltzen dute...</p> <p><b>Oinarrizko behar hauek dituzte:</b> Jolastea, ziurtasun afektiboa izatea, harremanak izatea, ingurunea aztertu eta ulertzea...</p> <p><b>Eskolatze hasieraren une kritikoa:</b> Familiarengandik banantzen ikasi beharra, irakaslearekin lotura afektiboa lortu beharra, adinekoekin harremanak egiten ikasi beharra, eskolako espazioak, errutinak eta funtzionatzeko erak bereganatu beharra...</p> <p>Eskolatze prozesuaren bidez garapen integrala lortzeko eskubidea daukate: garapen afektiboa eta soziala, mugimenduzkoa, kognitiboa eta linguistikoa.</p>	<p>Mundua ikusteko erreferente kultural desberdinak dituzte: balioak, ohiturak, eskolarekiko irudia. Gerta daiteke, hasieran batik bat, bi kultura desberdinen artean egotea.</p> <p>Ingurune fisiko eta soziala ez dute ezagutzen.</p> <p>Eskolara dakartzaten aurretiko ezagutzak desberdinak dira.</p> <p>Eskolako mundua ez dute ezagutzen: jostailuak, altzariak, liburuak, ohiturak, apaindurak..</p> <p>Batzuetan beste hizkuntza bat erabiltzen dute (edo beste hizkuntza batzuk).</p> <p>Ikasturtea hasita badago, gelakoek funtzionatzeko errutinak ikasita daukate, beren arteko harremanak hasita daude. Ikasle berriak arrotz eta baztertuta senti daitezke.</p>

Bestalde, guk ere ahaleginak egin behar ditugu eskolaren eta familiaren arteko ikuspuntu desberdintasunak argitzen eta ulertzen; modu horretan, guztiok aberastuko gara kulturen arteko elkarriketaren bidez.

### **Ikasle etorkinaren kultura eta hizkuntza baloratzeko dagoen beharra**

Ikasle berriak sentitu behar du bera, bere jatorrizko kultura eta hizkuntza onartzen eta baloratzen ditugula. Horrek garrantzi handia dauka norberaren estimua eta irudi positiboa eraikitzeko, bai eta hemengo kultura eta hizkuntza onartzeko jarrera ona izateko ere.

Horretarako, komeni da dakiena besteen aurrean agerian jartzeko aukera ematea eta, era berean, ikaslearen kulturako erreferente batzuk ikastetxean eta gelan txertatzea. Dena den, naturaltasunez jokatu beharra dago, topikoetan erori gabe. Dakiena azaltzeko aukera eman bai, baina astunak izan gabe, inori ez baitzaio atsegin tratatu desberdina jasotzea.

### **Hemengo hizkuntzak ikasteko ikasle etorkinak duen beharra**

Ikasle etorkin askok ez dute, ez euskarara, ez gaztelania jakingo. Beraz, hizkuntza horiek ikasi beharko dituzte. Beste ikasle batzuek, berriz, gaztelania dute ama hizkuntza. Horrek hasierako

harremanak erraztu egin ditzake, baina ez dugu ahaztu behar hizkuntzak erreferente kultural zehatz batetik edaten duela. Beraz, nahiz eta hizkuntza berbera izan, gure tonuera, hiztegia, esapi-deak... desberdinak izan daitezke, eta gaizki-ulertuak argitu beharko ditugu behin baino gehiagotan. Horrez gain, ingelesa ere ikasten dute. Hori guztia dela eta, hizkuntza bakoitzari emango zaion trataera erabaki beharko dugu: noiz, zein egoeratan, norekin eta nola landuko diren.

Dena den, txosten honen 3. atalean hizkuntzak lantzeko jarraibide zehatzagoak ageri dira.

### **Ikaslearen integrazioa lehenengo unetik zaindu beharra**

Ikasle berria bazterturik senti ez dadin, komeni da haren integrazio prozesuari arreta berezia ematea. Etorri aurretik, ikasgelan emango diogun harre-ra taldekideekin prestatuko dugu. Elkarrekin jolasteko aukera emango diegu eta, behar izanez gero, taldekideak berriari laguntza ematera gonbidatuko ditugu. Horrez gain, desberdintasunaren aurrean sor daitezkeen gatazkak eta baztertzak gainditzeko lagundu beharko diegu.

### **Ikaste prozesuari gertutik jarraitu beharra**

Ikaslearen integrazioa zaintzeaz gain, haren ikaste prozesuari arreta jartzeko saiatu behar dugu, ahalmen guztiak ahal den gehien gara ditzan. Beraz, haurraren aurrerapen, oztopo edo zailtasunak aztertuko ditugu eta horiek gainditzeko behar duen laguntza eskainiko diegu.

### **Ikasle guztiei kulturarteko hezkuntza eskaini beharra**

Guztiontzat aberasgarria da gelan kultura desberdinenak egotea. Ikasle guztiei eman behar diegu aukera kultura desberdinak ezagutzeko, baloratzeko. Horretarako, curriculumean kultura anitzen presentzia bermatuko dugu, gaiak hainbat ikuspuntutatik zein giza eskubideen ikuspegitik aztertuz.

## **Ikasle etorkinaren egokitzapena, integrazioa eta ikasketa prozesua laguntzeko iradokizunak**

### **Eskolatzeko hasieran**

Bi egoera hauek bereiziko ditugu:

### **A.- Ikasle etorkina irailan, guztiekin batera, eskolan sartzen denean**

Egoera honetan, ikastetxean ezarritako dagoen ohiko prozesua bete daiteke: hasierako egunetan talde txikitara eta txandaka sartu, ordu batzuk besterik ez eman, ama gertu egoteko aukera eman...

Dena den, familiaren egoera ikusita, malguak izango gara, eta berarekin izango ditugun lehenengo kontaktuak kontu handiz zainduko ditugu. Hona hemen kontuan hartzeko jarraibide batzuk:

- Behar izanez gero, gurasoen hasierako bilera orokorretan parte hartu ordez, elkarriketa indibidualak egin.

- Jarrera hurbila eta irekia izan, elkar ulertzeko behar den denbora eman.

- Egokitzapen garaia buruz proposatzen zaiena eta horren arrazoiak ulertzen dituztela ziurtatu. Proposatutakoa onartzeko oztoporen bat azalduko balute, irtenbideak adostu.

- Lehenengo egunetan, nondik sartu behar den, gelara hurbiltzen nork lagunduko dion eta abar finkatu.

- Informazioa dosifikatu, informazio gehiegi emanez gero ez ulertzeko arriskua baitago.

- Behar izanez gero, emango dugun informazioa ulertarazteko irudiez edota testuinguruaz baliatu. Horretarako, lagungarria izan daiteke bilera ikaslearen gelan egitea edota argazki bilduma bat izatea, esaten duguna argitzeko aukera emango baitigute: ikasgelan egiten dena azaltzean, erosi behar dituzten materialak esatean eta abar.

- Oinarriko informazioa ahoz emateaz gain, idatzirik eman (egutegia, ordutegia, erosi beharreko materialen zerrenda...).



## B.- Ikasturtean zehar ailegutzen denean

Gure arreta ondoko eremu hauetan jarriko dugu:

### Ikasle berriaren harrera prestatu

Arestian esan dugun bezala, kome- ni da ikasle berriaren harrera gelako ikaskideekin prestatzea. Hona hemen, adibide gisa, eman ditzakegun pauso- ak:

Gelako ikasleei ikasle berri bat eto- rriko dela iragarri eta gero, hari buruz dakiguna azal diezaiekegu: izena, jato- rrizko herria, dituen anai-arrebak, ha- ren hizkuntza eta abar. Haren argazkia baldin badugu, erakuts diezaiekegu, nolakoa den ikusteko. Ikasle berriak duena eta dakiena agerian jartzen saia- tuko gara haren alde negatiboak nabar- mendu beharrean ("ez daki euskara, ez du inor ezagutzen..."). Adinaren arabe- ra, haren herrialdea munduko bolan koka dezakegu, eta horren inguruko informazioa bilatu. Ondoren, guztion artean komenta dezakegu ikaslea gela- ra etortzen denean nola sentituko den, zer behar izango dituen eta gurekin gustura egoteko zer egin genezakeen.

Azkenik, lehenengo eguneko ha- rra egiteko ekintzak finkatuko eta prestatuko ditugu: gela apaindu, ikas- learen hizkuntza agurra ikasi, opari- txo bat prestatu (adibidez, guztion ar- gazkiekin edo marrazkiekin egindako liburua, argazkiaren azpian izena ida- tzita; orri txuri bat utziko dugu, non be- rriaren argazkia itsatsi eta izena idatziko dugun), guztion burua aurkezteko abesti edota joko batzuk egin, eta abar.

### Ikaslearen egokitzapena erraz- tu

Familiari hainbat aukera eskainiko dizkiogu lehen egunetarako: ikaslea eskolara sartu aurretik, egun batzuetan jolastokira jolastera etortzea gainerako ikasleak ez dauden bitartean; goizez edo arratsaldez soilik etortzea; ama- gertu izatea; ikasleak maitatzen duen gau- za bat ekartzea eskolara, etxearen eta eskolaren arteko bitarteko afektiboa izango dena...

Harrera behar bezala prestatzeko denbora beharko dugu. Familiarekin negoziatuko dugu etxeko baldin- tzak kontuan hartuta. Hortik aparte, fa- miliarekin hitz egiten dugunean hain- bat informazio jaso dezakegu, zertara- ko den azalduz: hauraren argazkia, ha- ren izena, ondo ahoskatu eta idatzia; agurtzeko erabiltzen dituzten eserak edota keinuak; haien herriari buruzko informazioa...

### Eskolatzeko prozesuan

#### Hainbat erreferente kultural erabili gelan eta curriculumean

- Gaiak eta proiektuak garatzerako- an: edozein gairen inguruan (anima- liak, etxea, elikadura...) denek dakite- na jaso, hainbat ikuspegi kontuan har- tu, kultura askotako informazioa jaso eta tratatu...

- Etxeko txokoa: itxura askotariko panpinak, Asiako zotzak eta katiluak eskaini, arabiar munduan ohikoak di- ren alfombra eta kuxinak...

- Liburutegian: hainbat hizkuntza- tan idatzitako liburuak/aldizkariak... Munduko ipuinak/abestiak... Haur guztien izenak hizkera desberdinetan. Kultura askoren inguruko informazio liburuak... Atlasak, lur bola...

- Plastika txokoa: hainbat herrita- ko artelanetako ereduak ("arabesko" izeneko marrazki geometrikoak, mas- karak, buztinezko ontziak...) Musika txokoa/gelan: hainbat herritako mu- sika tresnak, abestiak, dantzak...

- Jolastokian/psikomotrizitate gela- n: munduko joko herrikoiak.

#### Ikaslearen integrazio soziala zaindu

Saiatu behar dugu ikasle etorkina- ren integrazio soziala eskolako esparru guztietara zabaltzen: gelara, jolastoki- ra, jantokira, eskolaz kanpoko ekintze- tara, garraiora, txangoetara...

Horrek zera eskatzen du: batetik, esparru horietan esku hartzen dugun helduok (irakasleak, jantokiko begira- leak, eskolaz kanpoko ekintzak zuzen- tzen dituztenak, atezaina...) arduratu behar dugula ikaslearen artean errespe-



tuzko harremanak bultzatzeaz; eta bes- tetik, guztiok koordinatuta lan egin be- har dugula, irizpide bateratuak erabil- tzeko.

Ikaslearen arteko harremanak sendo- tzeko eta sor daitezkeen arazoei aurre egiteko jarduerak batzuk prestatu ditzake- gu. Horretarako onak izan daitezke:

- BAUM, Heike: *Con ese no quiero jugar*, Graó, Bartzelona, 2003.

- CASCÓN, P.: *La alternativa del juego*, Catarata.

#### Ikaste prozesuaren gertuko ja- rraipena egin

- Igurikimen altuak izan behar ditu- gu. Gaitasun guztiak garatzeko estimu- lu ugari ematen saiatu behar dugu.

- Ohiko jardueretan ikasleengandik gertu egongo gara, eta haiekin banaka- ko elkarrekin ugari egingo dira: egi- ten ari denari buruz jarraibideak eman edo azalpenak eskatu, jolasak edo jar- duerak aberasteko apustu berriak pro- posatu, gatazka kognitiboa sortu, da- kiena agerian jartzen lagundu, jardue- rak planifikatzen eta ebaluatzen lagun- du, konfiantza eta animua eman, txarto egindakoaz ohartarazi, oztopoak edo gatazkak gainditzeko irtenbide alter- natiboak bilarazi, jardueretan modu aktiboan parte hartzeko estimuluak eman...

- Ikaslearen arteko elkarrekin eta elkarri laguntzeko jarrera bultzatuko ditugu. Horretarako, joko eta lan koo- peratiboak proposa ditzakegu: bi ikas- laren artean puzzle edo eraikuntzak egin; ipuin bat irakurri, asmatu, marraz- tu..., bata besteari joko edo eta ataza bat nola egiten den azaldu; beraien ar- teko laguntza bultzatu oztopoak gain- ditzeko... •

## Enpresa berriak sortzeko kultura ereiten ikasleengan

### Lea-Artibaiko Azaro Fundazioa

Azaro Fundazioa orain dela lau urte sortu zuten Markina-Xemeingo Lea Artibai ikastetxeak, Markinako Udalak, Okamikako Industrialdeak eta Lea Ibarreko Mankomunitateak. Lea Artibai eskualdean enpresa berriak sortzen laguntzea du helburu, eta martxan dauden enpresei lehiakortasuna hobetzen laguntzea.

Enpresa berri bat sortu nahi dutenei tutoretza orduak eskaintzen dizkiete: 3 hilabetean proiektuaren bideragarritasuna aztertzen laguntzen diete, alor horretan aditu den tutorearekin. Proiektuaren arabera (adibidez, prototipoak egin behar direlako), epe hori 2 urtera arte ere luza daiteke. Bestetik, lanerako lokalak ere uzten dizkiete, diru-laguntzei buruzko informazioa ematen diete, edozein kezka aurrean aholkularitza eskaintzen diete, eta behin enpresa sortzen denean, finkatze fasean sartzeko aukera dute, enpresa sortu ondorengo aholkularitzaren bidez. Enpresa ideien lehiaketa antolatzen dute urtero: aurkezten diren guztiek tutoretza programa jasotzeko aukera dute, eta 13.000 daude, hiru saritan banatuta.

Aurten eskolekin hasi dira lanean, ikasleengan ekimena erna dadin.



#### **Ikasleekin ekimena landu behar da**

Azaro Fundazioan jabetuta daude enpresa berriak sortzeko sustapen kultura hori ikastetxeetan dauden gazteetatik hasi behar dela ereiten: “Gu ikasle ginenean –dio Ainhoa Arrizubietak, Azaro Fundazioko sustapen teknikariak– inoiz ez zitzaigun burura etortzen geuk enpresa sor genezakeenik; ikasketak beti egiten dituzu inorentzako lan egiteko burubidean. Beraz, ikusten dugu, gazte horiei euren enpresa sor dezaketela, euren erabakiak hartu behar dituztela esaten hasi beharra dagoela, ikus dezaten hor ere badela beste aukera bat”.

Ikasleen aldetik zer jarrera ikusten duten galdetuta, zaila dela dio Ainhoak: “Oraindik inorentzat lan egiteko txip hori dute. Eta gazteegi sentitzen dira halako proiektu batean sartzeko; dirurik ere ez dute, eta ez dute euren burua enpresa bat eramaten ikusten. Ho-

rregatik, lehenengo, lan munduan egiten dute proba, inoren kontura lan egin ez, eta gero erabakitzen dute euren proiektuari tira ala ez. Guk hauxe nahi dugu: ikasle direnen buruetan hazi hori ereiten hasi, gerora ‘ikastetxera joango naiz, edo Azarora, laguntza eske’ esan dezaten. Baina ekimena izan dezatela, eta jakin dezatela nora jo. Bestetik, egia da eskualde honek beti eduki duela sustapen indar hori, eta bere garaian kooperatiba asko sortu zirela. Baina lan asko dago egiteko”.

#### **Ikastexeei zuzendutako ekintzak**

Lea Artibai ikastetxearentzat, enpresa ideien lehiaketa antolatu dute. Ikastetxeko edonork parte har dezake (ikasle, langile, bekadun...). Enpresa ideia bat aurkeztu behar dute, eta 3 ideia onenek jasoko dute saria. Helburua Lea Artibai Ikastetxean sustapen kultura hedatzea da, eta partaideak





**Ainhoa ARRIZUBIETA**

AZARO FUNDAZIOKO SUSTAPEN TEKNIKARIA

orain ala etorkizunean beraien enpresa sortzera animatzea; eta erabaki hori hartzen dutenean jakin dezatela nora jo.

Eskualdeko ikastetxe guztiei begira, ikasturte honetan idazlan lehiaketa bat antolatu dute lehen aldiz. Taldeka jorratu beharreko gaia hauxe zen: “Zure enpresa sortzea zer da? Ilusioa, erronka, buru haustea...”. Sari banaketa abenduaren 16an izan zen, eta Ondarroako Txomin Agirre Ikastola izan zen irabazle. Lehiaketak izan duen harrera ona dela medio, datorren ikasturterako ere Lea Artibai eskualdeko ikastetxee-

tan martxan jartzeko hainbat ekintza prestatzen ari dira, sustapen kultura hedatzeko: ikasleekin dokumental edo film laburrak egitea, esaterako, eskualdeko enpresa bati buruz; kooperatibetara bisitak egitea, edota eskolan bertan kooperatibagintzari buruzko solasaldiak antolatzea. Nafarroan funtzionatzen ari den ekimen bat ere azertu nahi da (ikasleek kooperatiba bat sortu omen dute bertako produktuak saltzeko, eta diru sarrerak ikasturte amaierako bidaian baliatzen dituzte), Lea Artibai eskualdean ere bertoko produktu baten inguruan horrelako ekimen bat martxan jartzeko aukerarik badagoen jakiteko. •

**Ainhoa Arrizubieta:**  
“Gu ikasle ginenean inoiz ez zitzaigun burura etortzen geuk enpresa sor genezakeenik. Beraz, gazte horiei euren enpresa sor dezaketela esaten hasi beharra dago, ikus dezaten hor ere badela beste aukera bat”



## Sustatzaile Eskola jarri berri dute. Estatu mailan lehena da.

### • **Idea bideragarriak eta sustatzaile profila duten pertsonak biltzen dituen eskola.**

Fundazioan gertatu izan zaie profil oneko jendea etorri, baina ideiak huts egin duela eta enpresa sortu gabe bukatzea. Edo alderantziz: ideia oso ona izan, baina pertsona horrek gauzatzeko profilik ez izatea. Sustatzaile eskola honetan, ideia bideragarriak eta sustatzaile profildun jendea bildu nahi dituzte, Lea Artibai eskualdean enpresa berriak sortzeko.

### • **15 sustatzaile ariko dira beren ideiak lantzen, eta lanbide-profila formatzen.**

Langabezian dauden 25 urtetik gorako 15 ikasle hautatu dituzte. Kontuan hartu dute profila (ekimena, erabakiak hartzeko erraztasuna, zer proiektu duten), eta formazioaren amaieran benetan martxan jarri nahi duten enpresa. Proiektua INEM erakundeak finantzatu du, eta 15 ikasle horiek lan kontratua izango dute Azaroa Fundazioarekin. Sustatzaileek beren enpresa berriak sortzeko beharrezkoak dituzten tresna guztiak izango dituzte eskuragai.

### • **Espainiar Estatuan, proba pilotu moduan hartu duten esperientzia da.**

INEMek lan tailerrak edo eskola-tailerrak eskaintzen ditu. Sustatzaile Eskola honek zera du berri: langabezian dagoenak bihar lana izatea bilatzen du, baina bere enpresa sortuz. Horrek beste abantaila bat dakar gainera: lanpostuak sor ditzakeela. Proiektua aurkeztu zutenean, INEMi “berritzaileegia” iruditu zitzaion kasik. Azkenean proba pilotu moduan onartu dute, eta ondo irteten bada, esperientzia hau beste leku batzuetara ere zabaltzeko asmoa dago.

## Beldurraren aretoa

### Galtzagorri Elkarteak beldurrezko ipuinen inguruan osatutako erakusketa

Beldurraren aretoa ez da txiki-ekienek izua sentitzeko aretoa: hemen ez da argia joaten, ez mamurik azaltzen. Hau beldurra zerk ematen digun hausnartzeko leku bat da. Helburua da beldurra normalizatzea, bizitza osoan zehar guztiok dugun sentimendu natural gisa ikustea, horretaz lotsatu beharrean. Ikus, entzun, uki, dastadezagun zerk ematen digun beldurra, eta jakin beldur horiek lantzeko zer ipuin dauden euskaraz.

Aretoan sartu eta sukalde bat aurkitzen dugu: Jonasen sukaldea da. "Jonas eta hozkailu beldurtia" ipuina kontatuko digute, lekuan kokatzeko (J. K. Igerabidek idatzia, Mikel Valverdek ilustratua). Garbigailutik soinuak datoz, labean gauza higuigarriak daude, xukaderan irudi beldurgarriak, hozkailuan dastatzeak nazka ematen duten gauzak... Gailuz gailu, zentzumenen ibilbidea egingo dute hurrek talde txikitan. Aparailu bakoitzak atzean sorpresa bat du gainera: ipuinez betetako apala. Bertan beren beldurrak lantzeko idatzi izan diren euskarazko ipuinak dituzte aukerako.



#### Gaurko beldur berri gehienak telebistak sortuak dira

Hurrek beren beldurrez hitz egin dute jarduera honetan. Erakusketa-aren dinamizatzaile Alaitz Murok kontatu digunez, ohiko beldurrez gain (bakardadeari, iluntasunari, arrotzei zaien beldurra), badira beldur batzuk oso zehatzak eta gaurkoak direnak: urakanei edo marrazoei zaien beldurra, esaterako. Horiek, begi bistakoa denez, telebistak sortuak dira: hemen ez baitugu sekula urakanik ezagutu, eta marrazoa aipatzen zuen haurra Iurretakoa zen. Baina ikusi bai, hori dena ikusi egin dute, telebistan. Alaitz Muroren hitzetan, "hurrek etxean bakarrik gelditu behar dutenean, telebista piztuta uzten ditugu askotan, lasaiago egon daitezten. Eta alde batetik egia da lasaitzen direla, baina bestetik, beldur asko eta asko telebistan ikusita sortzen zaizkie". •

#### Fitxa teknikoa

- Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoei zuzendua.
- Erakusketa dinamizatzaile batek gidatzen du jarduera osoa.
- "Jonas eta hozkailu beldurtia" ipuinean oinarrituta dago (J. K. Igerabidek idatzia).
- Helburua da hurrek hausnartzea zeri dioten beldur, eta beren beldurrei buruz euskaraz dauden ipuinak erakustea.
- Erakusketa liburutegi, kultur etxe, udal, eskola edo erakunderen batek alokatu nahi balu, jo Galtzagorri Elkartera (943 471 487. E-posta: [galtzagorri@galtzagorri.org](mailto:galtzagorri@galtzagorri.org)).

# Sukaldean zehar, zentzumenen ibilbidea



## Erakusketaren hasiera

• Talde osoa elkarturik, beldurrari buruz hitz egiten dute: bizitza osoan zehar denok sentitzen dugun sentimendu natural gisa aurkeztuz. Bakoitzak bakarrik gelditu zeneko lehen aldi hura gogora ekartzen du.

• "Jonas eta hozkailu beldurtia" ipuina kontatzen zaie, ordenagailu baten aurrean DVD bidez, animaziozko marrazkiekin.

## Ibilbidea, Jonasen sukaldean barna

Talde txikitara jarrita, sukaldeko gailuz gailu ibilbidea egiten dute.



### Xukadera: ikusmena

"Zer ez duzu zure begi bistan ikusi nahi?"

Sei irudi beldurgarri erakusten zaizkie, izu gehien ematen diena hautatzeko.

• Xukadera atzean, beren beldurrari lotutako ipuinak begiratuko dituzte.

• Fitxa batean beren amets gaiztoa marraztu behar dute.

### Labea: ukimena

"Zer ez duzu ukitu nahi?"

Sei poltsa beltz daude: horietan eskua sartu behar dute, begiratu gabe, eta barnekoa atera gabe. Higuin handiena eman dien poltsa hautatu behar dute. Arrakasta handiena duen frogada.

• Labearen atzealdera joz, beren beldurrari lotutako ipuinak begiratuko dituzte.

• Fitxan marraztu eta idatzi behar dute zeri dioten higuina, eta zergatik.



### Garbigailua: entzumena

"Zer ez duzu inon ere entzun nahi?"

Sei soinu entzungo dituzte, eta beldur handiena ematen diena hautatu.

• Garbigailu atzean, beren beldurrari lotutako ipuinak begiratuko dituzte.

• Fitxan idatzi behar dute hautatu duten soinu horrekin zer irudikatu duten.



### Hozkailua: dastamena

"Zer ez duzu inola ere jango?"

Hozkailuan 6 objektu higuingarri daude potoretan (tarantulak, begiak, igela...). Pentsatu behar dute, zer ez luketen inola ere jango.

• Fitxan, idatzi behar dute ea zerbait beldurgarria gogoratu duten.

### Amaiera emateko

• Talde osoa elkartu, eta ibilbidean zehar sentitu dutenaz mintzatzen dira.

• Horma-irudi erraldoi batean haur bakoitzak marrazkia egiten du, "zeren beldur zara?" galderari erantzunez.

## Bai eskolak euskalduntzeari!

### Eskolak euskaldundu dezan eskatzeko sinadura bilketa martxan da Euskal Herri osoan

Jada abian dago *Bai eskolak euskalduntzeari!* kanpaina eta sinadura bilketa. Euskal Herriko hainbat eremutan ikasleei ez zaie bermatzen euskaraz ikasteko eskubiderik, eta ondorioz, hiru ikasletik bi euskaldundu gabe ateratzen da eskolatik: A, G eta X ereduko guztiak, B ereduko % 67 eta D ereduko % 32. Egoera horri amaiera eman behar zaiola diote hezkuntzako eta euskalgintzako hainbat eragilek. Eta orain denoi hori adierazteko aukera luzatzen digute sinadura bilketarekin.

Maiatza bitartean eskualdez eskualde eta herriz herri sinadura mahaiak eta leku konkrituak ezarriko dira aldarrikapen nagusi bat egiteko: **Bai eskolak euskalduntzeari!** Ahalik eta sinadura gehien bildu nahi dituzte, gero instituzioetara joateko. Kanpainari amaiera emateko bi ekitaldi egingo dira maiatzaren bukaeran: bata herrietako ekimen bateratua; eta bestea ekimen nazional bateratua.

Ibai Redondo sustatzaileetako batekin egon gara kanpainaren nondik norakoak ezagutzeko.

**Eskolak Euskaldundu Ekimenak antolatu du kanpaina hau. Nor dira ekimenaren sustatzaileak?**



Eskolak Euskaldundu plataforma da sustatzailea, eta plataforma bera eta kanpaina eragile askok babestu dituzte, besteak beste, Kontseilua, AEK, EHE, LAB, EHBE, Ikasle Abertzaleak, Sortzen-Ikasbatuaz, Euskal Konfederazioa, Oinarriak, Topagunea, IKA, UEU, Euskal irriatiak eta Ikas.

2002-03 ikasturtean sortu zen ekimena, bazegoelako kezka bat: eskolak ezzuela euskalduntzen. Horren aldeko aldarrikapenak egiten ziren, baina baita bere aldetik zebilen, nahiko sakabanatuta. Horregatik, indarrak bateratzeko sortu zen ekimena. Aurten saiera berezi bat egin da ekimena berri indartzeko, eta horren haritik sortu da oraingo kanpaina.

#### **Zein da kanpainaren helburua?**

Euskaldunduko duen eskolaren aldeko mugimendu soziala gero eta handiagoa da. Kanpainaren bitartez, dagoen kezka gehiago sozializatu nahi dugu eta kontzientziazioa bultzatu. Aldaketak egiteko aukerak ikusten ditugu, eta horretarako eskari sozialak indartsu izan behar du. Hori indartu nahi dugu.

#### **Zer aldaketa egiteko aukera ikusten dituzue?**

Euskal Herri osoan ez da egoera berdina, administrazio desberdinen pean gaudelako. Aldaketa sakonena EAEn sumatzen dira. Orain dela hilabete batzuk Legebiltzarrak Hezkuntza Sailari eskatu zion hizkuntza politika

## Ibai Redondo: "Ezin da onartu gaur egungo ereduaren gainean aldaketa txiki batzuk egitea. Ez. Euskaldunduko duen benetako lege bat behar da".

berraztertze eta hizkuntza politika-  
ren lege berri bate egiteko. Horrela,  
2007rako hezkuntzarako hizkuntza  
politiken lege berri bat egongo da  
EAEn.

Iparraldean Seaska eta Hiru Sareta  
nahiko lan eta presio egiten ari dira  
Frantziako Gobernuak giza baliabide  
gehiago jar ditzan. Izan ere, irakasle  
gehiago behar dituzte eskariari erant-  
zuteko eta euskarazko ereduak zabal-  
tzeko. EEP Euskararen Erakunde Publi-  
koak (Frantziako Gobernuak jarri zuen  
eskari horri erantzuteko) ere eskaintza  
bat egin du, baina nahiko apala, Hiru  
Saretak onartu ez duena. Baina mugimendua bada.

Nafarroan ere bai. Ikasturte hasie-  
ran Iruñerriko Patxi Larrainzar eta Ez-  
kaban nahiko gogor jarri ziren eskola  
publikoan Deredua nahi dutela aldarri-  
katuz eta gobernuari traba gehiago ez  
jartzeko eskatuz. Ikastolek ere behin  
eta berriro salatu dute egoera.

Mugimendu horrek denak aldake-  
tak bultzatzen ditu.

### Sarritan oinarriko aldaketak egiteko partez, moldaketa soiletan gelditzen da kontua. Ez al duzue arrisku hori ikusten?

Bai, eta zentzu horretan, gure eska-  
riak ere posiblistagoak izan zitezkeen.  
Berrazterketa bat egin eta petatxu bat  
jartzea eska genezakeen, eta aurrera-  
pauso txikiak ematea lortuko genuke-  
en. Baina horrekin soilik ez dugu uste

lortzen denik gure hizkuntza salbatzea.  
Euskal Herri osoan bermatu behar da  
euskalduntzea eta horregatik, eskae-  
rak orokorragoa izan behar du. Ezin da  
onartu gaur egungo ereduaren gainean  
aldaketa txiki batzuk egitea. Ez. Euskal-  
dunduko duen benetako lege bat eska-  
tu behar da, eta gero, proposamen kon-  
kretuak egin hizkuntzaren legea egite-  
ko aukera duten instituzioetan.

Horrez gain, nazioartean hizkuntza  
eskubideen inguruan diharduten hain-  
bat eragilerengana jotzeko asmoa ere  
badugu.

### Zer erantzun aurreikusten duzue instituzioen aldetik?

Oro har, hiru jarrerak har ditzakete

instituzioek: egoera berdina mantene-  
tzea, aldaketa txikiak egin eta arazoa  
usteltzen uztea, edo herritarren babesa  
aprobetxatu eta euskaldunduko duen  
legea edo legeak egitea. •



## Sinadura bilketa

### Kontuan hartuz:

- Euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza dela.
- Berezko hizkuntza ezagutzea nazioartean onartutako giza eskubidea dela.
- Derrigorrezko hezkuntzak herritarrei oinarriko ezagutzak bermatu behar dizkiela.

### Aldarrikatzen dut:

- Euskaraz ikasteko eskubidea Euskal Herri osoan bermatua izan dadila, ikas maila guztietan eta bereziki derrigorrezko hezkuntzan.
- Euskara ezagutzeko eskubidea bermatzea herritar orori. Eskolak belau-  
naldi berriak euskaldundu behar ditu.

### Eskatzen diet:

- Euskal Herrian hezkuntza eta hizkuntza arloko eskumenak dituzten instituzioei eta bereziki Eusko Jaurlaritza, Nafarroa eta Frantziako Gobernu-  
ei, eskola bidez belaualdi berrien euskalduntze osoa bermatzeko neurri zehatzak hartzea:
  - Euskararen ofizialtasuna aitortu eta gauzatzea, egun euskalduntzea bermatzen ez duten hizkuntza ereduaren politikak gainditu eta berriak definitzeko prozesuak irekiz, beharrezkoa den aldaketa oso baten bidean urrats gisa.
  - Horrekin batera, euskarazko irakaskuntzaren kontrako neurriak eten eta euskaraz ikasteko eskubidea bera osoki bermatzea.
  - Hizkuntza eskubideen egoerari jarraipena egiten dioten nazioarteko erakunde-  
ei, aipatutako aldarrikapenak gauzatzen laguntzea.

## Nola eta nork erabakitzen du zein baliotan hezi haurrak? Hor ere manipulatzeko al da?



Haurren artean lantzea komeni den balioen artean, "ausardia" balio gisa izendatzea planteatu zuen irakasle batek. Bakea, tolerantzia, elkarri laguntzea, biolentziarik eza... balio horiekin batera beste hau gehitzea: egoera bidegabeetan aurre egiteko adorea. Bileran zeuden gainerako irakasleak isilik gelditu ziren. Irakasle harentzat bizitzarako garrantzitsua zen beste balio bat ere bazen: "duintasuna". Hangelditu zen laino artean, irtenezinik. "Batez bada irteten, nola irtengo dira bi?" pentsatu zuen bere golkorako.

Balioen inguruan hitz egiteak edo entzuteak, gizabanakoaren izatearen eta jarreraren oinarria eraman gaitzake, baina badirudi horiek ere ez ditugula guztiok modu berean ulertuko, hautemango... Balioen gaia nahiko labainkorra dela esan dezakegu. Beraz, lehenik eta behin argitu nahi dut ondoko ekarpena, irakaslea eta Euskal Herriko beharrak aseko dituen hezkuntza eredu berri baten alde lanean ari den gizar-



Ruben Iglesias

IRAKASLEA. EHBeko eta UEUko KIDEA.

te eragile bateko kide naizen aldetik egindakoa dela.

Bada... zer dira balioak? Zer da balioetan hezteak? Zergatik lantzen ditugu balio zehatz batzuk soilik? Zer da ausartatzea? Nork aukeratzen du zein balio landu behar diren? Irakasleok balioei behar besteko garrantzia ematen al diegu? Azken batean, balioetan ere manipulazioa ote?

Azken galderari erantzunez hasiko naiz. Galdera/erantzun biribila da, bai. Hala ere, balioen manipulazioa ez da gertatzen soilik landu behar diren ba-

lioen aukeraketa subjektiboa eta interesatua delako; baizik, lantzen diren balioak estatikoak eta unibertsalak balira legez lantzen direlako, ikuspegi menperatzaileari bide eginez eta goitik beherako inposaketa indartuz.

Sistema kapitalistak bizirik irauteko beharrezkoak zaizkion balioak sortu, garatu eta definitzen ditu. Bere helburuak lortzeko hezkuntza tresna gisa erabiltzen du. Curriculumetan zeharlerro gisa hainbat balio landu beharra azpimarratzen da, hala nola: hezkidetzatza, elkartasuna, besteenganako errespetua, aniztasuna edota ingurumen hezkuntza; baina, hala ere, ikuspegi menperatzaile batetik eta egungo sisteman integratzeko lantzen dira, eta ez eraldatzeko.

Diodana, pare bat adibide koxkorrekin azaltzen saiatuko naiz. Curriculumean ikasleekin ingurumenarekiko errespetua eta begirunea landu behar dela aipatzen da. Horrela, birziklatzearen garrantzia azpimarratzen dute, edota ozono geruzaren egoera, hura gehiago ez kaltetzeko, **gizabanakoak** hartu behar dituen neurriak finkatuz. Baina, aldi berean, herritarren hitza eta erabakia errespetatu gabe, inguruneari

kalte itzela egiten dion Boroako zentrala ireki da, edota AHT, Jaizkibe leko portua eta antzeko proiektu suntsitzailak jarri dituzte martxan. Hori al da ingurumen hezkuntza? Hori al da albokoa errespetatzea? Hori al da herriaren nahia onartzea? Hori al da elkartasuna?

Era berean, indarkeria ezean hezi behar ditugu gure ikasleak, eta beraien arazoak konpontzeko elkarrizketa eta akordioa dela bidea azpimarratu behar diegu. Erabat ados. Baina nola egiten da hori, esaterako, espainiar konstituzioaren 8. artikulua eta horrelakoak aintzat hartzen baditugu? Zein da artikulua horren mezua? Indarkeria, biolentzia botereak erabiltzen duenean soilik dela zilegi?

Finean, honako hau adierazi nahi dut: egun lantzen diren balioak ez dira la guk definitutakoak. Botereak erabakitzen du balio bakoitzaren mugak zein diren, eta ariketa hori da manipulazioaren gailurra.

Balio horien garapena jaiotzen garenetik hasten den prozesua da. Gizartean ezarrita dauden arau sozialek erakutsiko digute gazte-gaztetatik nolakoak izan behar dugun, zer maitatu behar dugun, zer ikasi behar dugun, zein tele-saio kontsumitu behar dugun, nolako harremanak garatu behar ditugun... azken batean, **zer den zuzena eta zer ez**. Horretarako, bizi garen *status quoa* mantendu eta elikatzeke, botereak eskura dituen tresna guztiak erabiltzen ditu: komunikabideak, polizia, errepresioa, hezkuntza...

### Baina zer dira balioak?

Balioak ezin ditugu ikusi, baina igarri eta sentitzen ditugu. Balioak abstraktuak dira, ez dira begiekin ikusten, baina adimenaren bitartez ikus daitezke. Pertsonok balioak geure jarrera eta jokabideetan azalartzen ditugu.

Balioak pertsonaren identitateari hertsiki loturik azaltzen zaizkigun forma konplexuak dira; norberaren izate-tik oso gertu daudenak, pertsonaren jarreretan eragina dutenak, norberaren pentsamenduak eta ideiak egituratzen dituztenak; sentimenduak baldintza-

tzen dituzte, jokatzeko, izateko eta egiteko moduak baldintzatzen dituzten modu berean.

Baina balioak ez dira soilik pertsonaren identitatearen baldintzatzaile, balioek jendarte oso bat ere ezaugarritzen dute. Identitatea balioek osatzen duten ardatzaren inguruan eraikitzen baita; beraz, balioek pertsonaren eta jendartearen norabidea zehaztu dezakete.

Laburbilduz, balioak pedagogiaren ikuspuntutik erreferentziaren patroio edo arauak dira; helburuak eta jokatzeko irizpideak dira, finean.

### Eta zer da balioetan hezteak?

Balioetan hezteak ez gaitu balioak lantzeko espazio konkretu batera mugatu behar. Eskola agenteak elkarreraginean dauden memento oro landu eta borrokatu beharreko apustua da; beraz, eskola eszenatoki osoak izan behar du horiek lantzeko espazioa. Ikasleak noiz, nola eta zer egin ikasi behar du, eta posizioak hartzen eta gaurko eta etorkizuneko apustuei bide ematen; hau da, bizitzaren egoera desberdinetan egoki dena konbentzimenduz egiteko erremintak eskuratu behar ditu.

Gutako bakoitzak duen balio sistema jendarte honetan dauden bizitza ereduak zuzenki loturik dago. Gizabanakoaren aldaketak edo transformazioak gertatzen direnean, aldaketa horiek eragin zuzena izango dute jendartearen balioetan gauzatuko den bereraketan; nolahi ere, borroka ideologikoen helburua balio aldaketan eragitea da.

Izan ere, kultura eta herri askoren apustua balioen transmisioa izan da, jendartearen biziraupena eta ongizatea berma dadin.

Postmodernitate garai honetan, geroz eta gehiago hitz egiten dugu balioen hezkuntzari buruz, baina gero eta eszeptikoagoak gara balioen eta horien lanketaren inguruan. Iritzi askotarikoa daude gai horren inguruan, baina denok pentsatzen dugu balioetan hezteak beharrezkoa dela. Eskolaren egunerokotasunean, ikasgeletan eta

curriculumean ere, presente egon behar dute balioek.

Jendarte bakoitza balio konkretuen ekarlea da, eta balio horiek gizabanakoak ikasi egiten ditu. Balioek jendartearen interes eta beharrei erantzuten diete, eta jendarteak, behar duen pertsona ereduaren arabera hezkuntza politika definitu eta ezarriko du.

Balioen hezkuntza prozesu humanizatzailetzat jo dezakegu, prozesu indibidual eta sozialtzat, eta pertsonaren bizitza guztian zehar gertatzen da, jakintza bera baino areago, eta azalartzen dena baino sakonagoa da.

### Balioak dinamikoak eta erlatiboak dira

Historian zehar balioen esanahia aldatuz doa. Era berean, memento historiko jakin batean balioaren beraren zentzua ere ez da berdina. Izan ere, balio bakoitzak hainbat zentzu hartzen ditu kokatzen den testuinguruaren arabera. Balioak kulturalak dira beti, eta inguruan, gizartean erroturik daude. Ez dago balio absoluturik, goitik behera inposatzen diren balioak soilik bihurtzen dira absolutu.

Platonen nahiak aspaldi zapuztu ziren. Atenastarrak gorapatzen zuen kontzeptuen esentzia komun, unibertsal eta atemporal ezinezkoa dela dirudi; azken batean, ditugun balio unibertsal bakarrak giza eskubide unibertsalak dira, eta horiek elkarrizketa eta akordioaren bidez erabaki eta onartutakoak dira. Bide batez, horiek betetzeko mekanismoak sortzen hasi beharko genuke, hori baita benetako arazoa.

Balioak ikuspegi dinamiko batetik ulertzen edo azaltzen baditugu, balioak eraiki egin beharko ditugu, gure errealitatetik eta esperientziatik abiatuta.

### Zer ote da ausardia?

Aipatu bezala, balio bakoitzaren gaineko definizio komun bat partekatzeko nahiko zaila egiten zaigu. Hiztegi-tara jotzen badugu, hiztegi bakoitzak modu desberdinean definitzen

## Balioak denon artean bilatu eta aukeratu behar dira. Ezin

dira teoriko-  
ki irakatsi,  
ereduen  
bidez, balio-

ak egunerokoan,  
praktikan ikasten  
eta irakasten  
direlako.

duela ohartuko gara. Hots, bakoitzak bere ñabardurak dituela. Ikus dezagun, bada:

Euskarazko hiztegia, Adorez 2, **ausardia**: zerbaiti aurpegia emateko adorea: *ausardia handia behar da gero, euskara gaztelaren zapaltzaile dela esateko!*

Baina zer ote adorea?

Eta zerbaiti aurpegia ematea?

Harluxet hiztegi entziklopedikoa, **ausardia**: arriskuen aurrean atzera egiten ez duenaren jokaera: *Deusen beldur gabe, ausardia handiz.*

Zer da arriskua? Denok modu berean ulertzen al dugu arriskua?

Bada, hiztegi bakoitzak bere definizioa ematen du. Oso zaila egiten zaigu definizio komun eta absolutu bat ematea; ezinezkoa, nire ustez. Beraz, nola irakatsiko diegu ikasleei ausarta izatea zer den, sakoneko esanahian ados jartzen ez baldin bagara?

Elkarrizketa da dudarik gabe biderik egokiena eta agian bakarra, balioen aplikazioari dagokionez, ez ikasleei balioak ezartzeko eta bereganatzen ari diren jakin ahal izateko, balioak denon artean bilatu eta aukeratzeko baizik.

Eta horretara dator ondotik proposatzen dudan testua. Ikasgelan, ikasle-

en eta irakaslearen arteko elkarrizketaren bidez, esate baterako, ausardia kontzeptuaren definizio komun bat lortzeko asmotan. Ikerketa eta parte-hartze horrek bermatuko baitu ikasleak modu kontzientean balio bakoitzaren esanahia ulertzea; esaten eta egiten denaren arteko koherentzia indartuz. Balioak ezin baitira teorikoki irakatsi, ereduen bidez, balioak egunerokoan, praktikan ikasten eta irakasten direlako.

### Ausardiaren gaia lantzeko testu proposamena

*Igela eta katagorria liburu bat irakurtzen ari ziren:*

*-Liburu honetan agertzen direnak ausartak dira-esan zuen igelak-. Dragoeikin borrokatzen dira, eta inoiz ez dute beldurrik.*

*-Gu ere ausartak izango ote gara?-galdetu zuen igelak.*

*Baina zeren arabera esan dezakete ausartak diren ala ez? Igelak bi irizpide proposatu zituen:*

1. *Pertsona ausartek egiten dituzten gauzak egin behar dira.*

2. *Egiterakoan ez da beldurrik izan behar.*

*Eurak ausartak ote ziren jakin gura zuten, eta horretarako bi baldintza horiek betetzen zituzten edo ez frogatu behar zuten. Igela eta katagorria ispilu baten aurrean jarri ziren, beren baitarako zera esanez,*

*-Ausartak dirudigu, baina froga dezagun.*

*Horrela, igela eta katagorria abenturaz beteriko txango batera abiatu ziren. Aurrena mendi bat igotzen hasi ziren, eta kobazulo baten atarira iritsi ziren. Bat-batean, ikaragarritzko suge bat agertu zen eta:*

*-Ummm, janaria-esan zuen igela eta katagorria ikusitakoan.*

*Igelak eta katagorriak arrapaladan alde egin zuten. Igela urduri eta dardara batean zegoen.*

*-Ez dut beldurrik!-oihukatu zuen.*

*Beldurrik ez zutela frogatu nahian edo... mendian gora jarraitu zuten.*

*Bat-batean, ikaragarritzko soinua en-*

*tzun zuten, eta harri pila bat gainera zetorkiela konturatu ziren:*

*-Kontuz, harri-jausi bat dator!-oihukatu zuen igelak.*

*Igelak eta katagorriak salto egin zuten. Katagorria dardara batean zegoen.*

*-Ez dut beldurrik!-oihukatu zuen katagorriak.*

*Tontorrera iritsi ziren, eta han, beraien gainean, sarraskijale baten itzala sumatu zuten. Harri baten atzean ezkutatu ziren. Sarraskijalea joan ondoren, ezkutalekutik irten ziren, eta zera oihukatu zuten:*

*-Ez dugu beldurrik!!*

*Arineketan katagorriaren etxera itzulita, esan zioten batak besteari:*

*-Oso harro nago zu bezalako lagun ausarta dudalako-katagorriak.*

*-Eta ni oso harro sentitzen naiz zu bezalako lagun ausarta dudalako-igelak.*

*Segidan, igela ohean sartu eta osoki tapatu zen. Katagorria, aldiz, armairuan sartu eta barrutik giltzapetuta bertan geratu zen lotan. Gau guztia pasa zuten hala, elkarrekin oso ausartak sentitzen zirelarik.*

Saia gaitezen, inortxok alde aurretik erabaki gabe, gizabanako, jendarte zein herri gisa nahi eta behar ditugun balioak erabakitzen eta definitzen. Izan ere, ekarpen honen helburua ez da soilik egun Euskal Herri luze-zabalean dauden hezkuntza sistemen egoera salatzea; era berean, lanerako tresna ere izan nahi du. Botereak konformismoari ausardiarekin, zorientasunari diruarekin, arrakastari telebistarekin, disidentziari terrorismoarekin... izaera eta zentzua ematen dien bitartean, badirudi, duintasuna kontzeptuak ez duela izaterik eta zentzurik batzuen baitan.

Euskal Curriculumama lematzat hartuta, saia gaitezen Euskal Herriak behar duen hezkuntza sistema eraikitzen; ekinaren ekinez bidea eginez baikoaz aurrera... ●



Bide eginean jarraitzen dugu zuen  
ekarpenekin eta parte-hartze  
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia  
den heinean, interesa duen edonoren  
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoak euskal  
hezkuntzaren  
aldeko ekimen honetan.

martxoa

berriak

# DEIER hezkuntza behatokia aurkeztu da



Otsailaren 17 eta 18an **Aldaketa hezkuntzan** izenburuko kongresua gauzatu zen Kristau Eskolak eta Ibaizabal argitaletxeak antolatuta. Bertan aurkeztu zen DEIER hezkuntza behatokia. Datoren hamarkadako hezkuntzak izan dezaken bilakaera aurreikustea du helburuetako bat, hezkuntzak dituen erroka berriei etengabe so eginez, eta eragileentzat erreferente izan nahian.

“Aldaketa hezkuntzan” izeneko bi egunetako kongresuan beste hainbat gai ere jorratu ziren, eta esperientzia interesgarriak ezagutarazi ere bai. Gure gizartea eraldatzen ari diren eragileek, globalizazioak, interkulturalitateak, teknologiak... bete-bete hartzen dute hezkuntza ere eta aldaketak ezinbestekoak dira. Egun, Europaren eraikuntzak hiritar europar berri baten helburua jarri dio hezkuntzari. Javier Manuel Valle Lópezen aburuz, horrek duen

zentzu historikoaz jabetu eta Europarekiko jarrera positiboa bultzatu beharko lukete eskolek. Handik datozkigun hezkuntza politikak kooperaziozko eredu integratzaile eraman beharko gintuzke eta ez helburu ekonomiko-profesional soilera.

Horretarako, dauden hezkuntza sistemek antolaketa eta kudeaketa berrira eskatzen dute denon berdintasuna ziurtatzeko. Finlandiako eta Alemaniako administrazioen kudeaketen eredu (ikastetxeen autonomia, kalitatearen ardatz) azaldu zituzten Imanol Ige-regik eta Lontxo Oiartzabalek. Txema Errastik, berriz, ikaslearen profilaren aldaketa bideratzeko, arazoetan oinarritutako ikasketei buruzko esperientzia bat azaldu zuen.

Gaurko gizartearen aniztasuna dela eta (jatorri askotako biztanleria, erlijio desberdinak, hizkuntza asko, balio as-

kotarikoak... batera) oinarritzko kontsentsu axiologikoen beharra azpimarratu zuen Alfonso Unzeta, soziologoa.

Balioetan oinarritutako hezkuntza esperientziei eskainitako gaian hiru esperientzia eman ziren ezagutzera: Belfasteko haur katoliko eta protestanteak elkarrekin eskolatzen dituen Logan eskola, Pentazitatean oinarritutako Asti-Leku ikastolako proiektua eta Alboan GKEk Aldatze eskolan solidaritatea lantzeko gauzatu duten esperientzia.

## Partaidek beste urrats bat eman du aurtengo topaketetan



Otsailaren lehen bi egunetan ospatu ziren Partaidek antolatutako jardunaldiak Donostian. Aurtengoa laugarren edizioa izan da, eta izenburua honako hau: **“Hezkuntza zerbitzu publikoaren adierazleak, ikastola-kooperatiben ikuspegitik”**. Aurreko urteetako ildoari jarraituz, eskola hitzarmen edota lege berri baten premia adierazi dute aurtengoan. Egungo egoera (pribatu-publiko dikotomia) gainditu eta beste eredu bat proposatzen dute: **herri onurako zerbitzua**. Zerbitzu publiko horrek izan beharko lituztekeen adierazleak eta ereduak zehazten saiatu dira aurtengo jardunaldietan. Horrela, hainbat gai zehatz landu dituzte bertarako direnek: ebaluazioa eta kontrol soziala, euskal curriculum, ekitate eta elebitasuna testuinguru eleanitzean.

# Ikastaroak



Udako Euskal Unibertsitatea

## UEUren ikastaro eskaintza

Ekaina bitartean ikastaro hauek eskaintzen ditu UEUK Eibarko Isasi-Markeskoa jauretxean.

### - Kontatzezik mintzatzera: ipuina, hitz egiteko baliabidea

Irakaslea: Josemari Carrere, ipuin kontalaria, antzezlaria eta kazetaria

• 20 ordutako ikastaroa. Astearte eta ostegunetan, 18:00etatik 20:00etara.

• Datak: martxoaren 7, 9, 9, 14, 16, 21, 23, 28, 30 eta apirilaren 4 eta 6an.

### - Emakumeentzat dantza terapia

Irakaslea: Iratxe Aldasoro, fisioterapiari diplomatua.

• 20 ordutako ikastaroa, 16:00etatik 19:00etara.

• Datak: maiatza-ekaina (egunak zehaztu gabe).

### - Euskal musika eta kultura ikastaro praktikoa

Irakasleak: Agus Barandiaran, Iker Lopez de Bergara eta Iker Diez Iturralde, musikariak.

• 36 ordutako ikastaroa, asteazketan, 18:00etatik 20:00etara.

• Datak: martxoaren 1etik ekainaren 28ra.

Informazioa eta izen ematea:

[www.ueu.org](http://www.ueu.org)

## Aniztasuna@autonomia.bhi jardunaldiak

BiHek VI. Hezkuntza Jardunaldiak antolatu ditu martxoaren 8 eta 9an. Gasteizko Villasuso Jauregian izango dira eta egitaraua honako hau izango da:

### Martxoak 8, asteazkena

9:15-9:30 Hasiera ekitaldia

9:30-10:15 **1. saioa:** *Aniztasun egoera EAEn*, Javier Granja, HUI Seko ikuskaria.

10:15-10:45 Kafe-etena

10:45-11:45 **2. saioa:** *Aniztasuna eta elkarbizitza institutuetan*, Joseba Bueno eta Pili Azpiroz, BiHe elkarteko partaideak.

11:45-13:00 **3. saioa:** *Ikastetxearen autonomia, hezkuntza proiektuaren ardatza*, Rosa Artigal eta Joaquin Rios, Kataluniako Costa i Llobera eskola publikokoak.

13:00-14:00 **4. saioa, eztabaida foroak:** *Ikastetxearen autonomia eta aniztasuna*, Foroetako koordinatzaileak eta etorritakoak.

**Martxoak 9, osteguna**  
9:00-9:30 **5. saioa:** foroetako **ondorioak:** Foroetako koordinatzaileak.

9:30-10:45 **6. saioa:** *Ikastetxearen autonomiatik aniztasunari erantzuten*, Alvaro Marchesi, Madrilgo UCMko irakaslea.

10:45-11:15 Kafe-etena

11:15-12:15 **7. saioa:** *Autonomiaren garrantzia ikastetxeen etengabeko hobekuntzan*, Joan Estruch, Bartzelonako ICEko irakaslea.

12:15-13:30 **8. saioa:** *LOEren aurkezpena: berrikuntza nagusiak*, Alejandro Tiana, MECeko Hezkuntza idazkari nagusia.

13:30-14:00 Amaiera ekitaldia.

Informazio gehiagorako:

[www.bihe.net](http://www.bihe.net)



# www.hikhasi.com



Berriak . Materialen salmenta . Udako topaketak . Kontaktuak . Harpidetza .

# “2005-2015eko ikastola. Hezkuntza proposamen bat eraikitzen” izenburupean egingo dira Ikastolen Elkarteko jardunaldi pedagogikoak

LOGSE, LOCE, LOE... lege bat bestearen atzetik ateratzen ari den bitartean, zer gertatzen da gure eskoletan? Zenbateko eragina dute? Haiei begira egon behar al dugu ala gure hezkuntza proiektuak izan behar du ardatz? Galdera horiek egin dituzte ikastolen elkarteko jardunaldi pedagogikoen antolatzaileek. eta horren haritik antolatu dituzte aurtengo jardunaldiak.

Legeek ematen dituzten astinduek kezka sortzen dute arduradun pedagogikoengan, baina aldi berean, haiei begira egon gabe nork bere proiektua sendotzea garrantzitsutzat jotzen dute. Ikastolek euren proposamena eraiki

nahi dute hezkuntza alderdi guztiak kontuan hartuta, eta ikusi aurrera begira zer norabide hartu beharko lukeen orain egiten dutenak. Eta gero, legeak etortzen direnean, ikusi hori nola ezkontzen edo kontrajartzen den legearekin, eta zer egingo den erabaki.

Horterako, ikastolen erreferentzia bat sortzea nahi dute, eta horixe da jardunaldietan lortu nahi dena. Gauzak horrela, alderdi hauek landuko dira, besteak beste:

- Alderdi identitarioa eta soziala
- Irakaskuntzaren antolaketa: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa: hel-

buruak eta alderdi metodologikoak.

- Hizkuntza proiektuak, curriculum proiektua... aztertu

- Ebaluazioa
- Eskola inklusiboa
- Tutoretza

Nahiz eta hitzaldi orokor bat edo beste izan, aipatu gaiak talde txikitan eta metodologia parte-hartzailearekin landuko dira.

Jardunaldiak martxoaren 29, 30 eta 31an izango dira Gasteizko Villasuso jauregian.

**Informazio gehiagorako:**  
[www.ikastola.net](http://www.ikastola.net)

## EHIGE, Sarean eta BiHe euskal curriculumaren trenera igo dira



**EHIGE, Sarean eta BiHe** euskal curriculum osatzeko prozesuan parte hartuko dutela eman dute aditzera Bilbon egindako

prentsurreko batean. Orain arte ez dute parte hartu “egitasmorako azaldu diren prozedura eta planteamenduekin” ez datozelako bat.

Halere, euskal curriculum sortzea “derrigorrezkotzat” jotzen dute, eta eurak ere lanari ekin diote. Beren proposamena eta prozedura lantzen hasi dira eta gainerakoek bezala, uztaileko prest izango dute ekarpena. Txostena Hezkuntza Sailari igorriko diote.

Hiru elkarteetako ordezkarien iritziz, Hezkuntza Sailak izan beharko luke ekarpen guztiak jaso eta ofiziala izango den curriculum osatzearen arduraduna.

Bestalde, prozesua aurrera eramateko, irakasleak sentsibilizatzea funtsezkoa dela azpimarratu dute, horiek baitira gero curriculum landuko dutenak.

## Hezkuntza etorkinekin IV. mintegia: integrazioa ala segregazioa

EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Sailak antolatuta, hezkuntza eta etorkinen inguruan urtero egiten den mintegijaren 4. edizioa izango da martxoaren 10ean. Aurtengo gaia "Integrazioa ala segregazioa" izango da eta egitaraua, berriz, honakoa:

9:00-9:30 Dokumentazio banaketa

9:30-11:00 *Ikasle etorkinak gelan. Integrazioa ala segregazioa? VICeko egoera*, Jaume Carbonell, *Cuadernos de Pedagogía*ko zuzendaria.

11:00-11:30 Atsedendia

11:30-13:00 *Etorkinen gutxiengo hizkuntzak eskolan*, Laura Mijares, Madrilgo Unibertsitate Complutenseko irakaslea.

Bazkaria

15:00-17:00

- *Etorkinak eta hizkuntza ereduak*, Mario Zapata, Behatokiko kidea.

- *Zarauzko Orokieta herri eskolako esperientzia*, Idoia Lasarte eta Xabier Mujika.

- *Usurbilgo Udarregi ikastolako esperientzia*, Marije Imaz.

- *Mungiako institutuko esperientzia*, Luisma Landaluze.

17:00-17:30 Atsedendia

17:30-19:00 *Katalanaren irakuntza ikasle etorkinekin*, Ignasi Vila, Gironako Unibertsitateko irakaslea.

**Informazioa eta izen ematea:**

Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultean, 3. solairua.

Tel.: 943 01 54 62

E-posta: cite@sc.ehu.es



## Hasi da II. piropo lehiaketa

Urtxintxa Eskolak eta Ttakun Elkarteak gazteei zuzendutako **II. piropo lehiaketa** antolatu dute, eta iaizko arrakasta errepikatzea espero dute. Izan ere, iaz 1.000 piropotik gorajaso zituzten eta losintxarrik onenaren saria honako honek jaso zuen: *Zuregatik bale bat hilko nuke txankleta-zoka*.

*Piroporik gabeko muxuak lau, piropoa bota eta hamalau* lelopean antolatu dute aurten lehiaketa eta jada hasita dago. 18 urtez azpiko gazteek izango dute parte hartzeko aukera martxoaren 14a bitartean. Piropoak honako helbide honetara bidali behar dira: [www.aisia.net](http://www.aisia.net)

Hautapen batzordeak jasotako konplimendu guztien artetik 14 aukeratu ditu eta web orrian jarriko dira martxoaren 24tik aurrera. Ondoren, horiei botoa emateko aukera izango du nahi duen orok web gunean sartuta eta horrela aukeratu da irabazlea. Pertsona bakoitzak boto bakarra eman ahal izango du. Apirilaren 14a bitartean jasoko dira botoak eta irabazlea apirilaren 24an jakinaraziko da.

Irabazle nahiz finalistentzat hainbat sari egongo dira. Irabazleak, esate baterako, Gorkizko aterpetxean asteburu bat pasatzeko aukera izango du beste zazpi lagunekin. Horrez gain, bere piropoarekin diseinatutako 20 kamiseta jasoko ditu.

Finalisten artean Argia, Urtxintxa, Gaztelupeko Hotsak eta Susaren materialak eta aipatu kamisetak banatuko dituzte. Gazteiz, Donostia eta Azpeitiako parte-hartzaileen artean ere sariak zozketatuko dira, lehiaketak herri horietako udalen laguntza jaso duelako. Eta botoa ematen duten guztien artean ere 10 kamiseta eta Gaztelutxoko bi harpidetza zozketatuko dira.

## Martxan dira Erein-Euskadiko Kutxa eta "Donostia, Opera Prima" narratiba sariak

Erein argitaletxeak Erein-Euskadiko Kutxa eta "Donostia, Opera Prima" narratiba sarien 3. deialdia egin du. Lehiaketaren helburua euskaraz idatzitako literatura bultzatzea da, eta orobat, euskal egileak sustatzea. Sariaketa bi urtez behin egiten da eta hurrengo saria 2007. urtean emango da. Horrenbestez, parte hartzeko epea irekita dago.

Erein-Euskadiko Kutxa Narratiba sariak eleberri onena sarituko du. Sariaketa honetan parte hartzeko 2007an 35 urte edo gutxiago izan behar dira, edota, adina edozein delarik ere, narratibalibururik argitaratu eman gabekoa izan behar da. Saria 24.000 eurokoa izanen da.

"Donostia, Opera Prima" Narratiba Sariak, berriz, 2007 urte barruan 35 urte edo gutxiago izan edo narratiba libururik argitaratu eman gabekoa dela aurrez adierazi duen idazleak idatzitako eleberri edo narratiba lan bikainena sarituko du. Saria 9.000 eurokoa izango da.

Lanak aurkezteko epea 2006ko abenduaren 20an bukatuko da. Helbide honetara bidali behar da:

Erein (Erein-Euskadiko Kutxa Narratiba Saria), Tolosa etorbidea 107, 20018 Donostia.

**Informazio gehiagorako:**

Tel.: 943 218 211

[www.erein.com](http://www.erein.com)

# argitalpenak



## Sentitu.

### Hezitzaileak harreman-trebetasunak lantzen

Pello Jauregi eta Asier Huegun  
UTRIUSQUE VASCONIAE


Lehen atalean, hezitzaileen harreman-trebetasunez eta ikasbide esperientzialaz gogoeta egiten da. Bigarren atalean ariketak planteatzen dira, bost metaforari loturik: lurra, metala, ura, egurra eta sua. Azkenik, aplikazio metodologikoak sakontzen ditu liburuak •



## Lizurdea plisti-plasta

### URTXINTXA ESKOLA

Memoria jolas kooperatibo bi datoz kaxa honetan: "bikote jolasa" eta "ezkutaketan". Itsas ingurunearen ezagutza lantzen da berauen bidez. Euskarari dagokionez, itsasoari lotutako hiztegia lantzea du helburu nagusi. Jolas kooperatiboak dira: lehiarik bultzatu gabe, denen indarrak batuz kanpoko elementu bati aurre egitea da gakoa. 2 eta 4 urtetik gorako haurrei zuzenduta daude •



## Elurrezko panpina

### Enkarni Genua EREIN

Antezlan bat dugu honakoa, 6-7 urteko haurrek egiteko pentsatua. Obra entseatzan hasi aurretik, neska-mutilen espresioa lantzeko zer jolas egin proposatzen digu liburuak, Arte Hezkuntzarekin lotura eginez: plastika, musika, hizkuntza zein gorputzadierazpena lantzeko jolasak dira. Antezlanak, hotzak dagoen elurrezko panpinaren istorioa kontatzen du •



## Eguzki sistemaren sekretuak azken bidaia zientifikoaren arabera

### Artizar taldea GAIK

Zunda espazialek jasotako material eta interpretazio berrienak biltzen ditu liburuak. Eguzki sisteman barna ibilaldia egiten du, Marten bizirik ba ote den edota ilargi berriaren enigma aztertuz. Eguzki sistemaz haraindi joanda, kanpoko planetez gaur zientziak dakien berri ematen du •



## Eskola-antolaketa

### Karmele Bujan Pello Aramendi UEU

Hezkuntza erakundeetako hobekuntza-prozesuak ditu aztergai liburuak: zuzendaritza taldea aukeratzeko eta aldatzeko prozesuak, irakasle taldeen arteko koordinazioan eragiten duten faktoreak, zentroan berrikuntza bultzatzeko estrategiak, talde lana dinamizatzeko teknikak eta abar •



## Amona basoan galdu zenekoa

### Arantxa Iturbe ELKAR

"Behin ipuinak nahasten hasi zen amona Eleni, eta Txanogorritxoren ipuinean galdu zen, gauzak ahanzten hasi baitzitzaizkion. Esaterako, ahaztu egin zuen zergatik deitzen dioten Txanogorritxori izen horrekin. Orain ilobak kontatzen dizkio ipuinak amona Eleniri". Sentiberatasunez idatzitako ipuina da, 8 urtetik aurrerakoentzat •

# ... goza nazazu gehiago

## Eskola eta gazte hizkera



**Jaime Altuna**  
Urtxintxa heziketa eskola

Denok konturatu gara: gazteen artean euskararen ezagutza asko handitu da, erabilera, aldiz, gutxi handitu da. Denon ahotan dago: gazteek eskolan euskaraz hitz egiten dute baina lagun artean, kalean, jolas orduetan eta aisialdian erdaraz aritzen dira. Denok dakigu datozen urteetako erronkak zein diren: erabilera, erabilera eta erabilera.

Erabilera handitzeaz hitz egiten denean, lagunarteko hizkera aipatzen da. Gazteek, orokorrean, gabezi handienak lagunekin bat-bateko egoeran erabiltzen duten hizkeran

dituzte. Hori litzateke Estibaliz Amorrortu ikerlariaren ustez gazte hizkeraren definizioa: gazteek aisialdian, lagunekin daudenean bat-bateko egoeran erabiltzen duten hizkera. Gazteek, beraiek, onartzen dute euskara ez dela eraberritu. Hala adierazi zuten Azpeitian ospatutako gazte hizkerari buruzko jardunaldietan. Bertan, bildutako gazteen iritziz gazte hizkera kalean sortu behar da eta gazteek indartu behar dute. Gazteek hizkera kolokiala zuzenean irakaskuntzarekin lotzen ez badute ere, eskolan gazte hizkera zeharka lantzeko beharra ikusten dute. Jakina da eskola ez dela esparru egokiena hizkera ez formala lantzeko, lagunarteko hizkerarekin jolasteko edo kaleko hizkera sortzeko. Baina, Andoni Egañak aipatu zuen bezala, "hizkuntza normaldua duten tokietan, Murtzian adibidez, non ikasten dute umeak iraintzen? Kalean, noski. Hemen, berriz, eskolan erakutsi beharko zaizkie euskarazko irainak. Baliabideak eman behar dizkiegu ume eta nerabeei, euskaraz goxo bizi daitezen".

## ZER EGIN

- Ahozotasuna sustatu: gazteen artean euskarazko ahozko erabilera handitzea nahi badugu, gazteak ahal bezainbat mintzatu beharko dira euskaraz.
- Hizkera motak landu: eskolan garrantzizko zeregina da hizkera jasoa erakustea; hala ere, beste hizkera eta erregistro motak badirela ohartaraztea ere garrantzizkoa da. Gazteek ohartu behar dute haur batekin hitz egiteko erabiltzen den hizkera edo adineko batekin erabiltzen dena ez direla berdinak, edo aisian lagunartean erabiltzen den erregistroak ez duela antzik unibertsitatean erabiltzen den erregistroarekin.
- Hizkera ez formala erabiltzeko eta lantzeko uneak bilatu, erabili eta planifikatu: eskolak lagunarteko hizkera erabiltzeko aukera ugari eskaintzen ditu: jolas garaietan, autobusean, txangoetan... Beraz, hizkera ez formala sustatzeko horiez baliatzea izango da eskolaren zeregina. Horretarako, eta lana eraginkorra izango bada, ezinbestekoa da planifikazioa.
- Eskola orduetan lagunarteko erregistroa landu: aurreko puntuetan aipatutako lanak indartzeko geletan lagunarteko erregistroa lantzeko tartea uztea komeni da. Horretarako, hainbat argitalpen eta proposamen erabil ditzakegu: Mantxut, Frexxkue, Gazte Hizkerarekin Jolasean...

# atzeko atetik



**Itxaro BORDA**

IDAZLEA

Eskola hitza ahozkatzen dudanean, Herriko eskola etortzen zait gogora. Hizkuntza berri bat eta kontatzen ikasi nuen lehen tokia hain zuzen. Alabaina sei urte arte euskaraz baino ez mintzo eta urte eskas batez frantsesera pasatu behar izan nuen. Egoera jadanik berezia zen, eskola lagunek aspalditik mintzaira hori ezagutzen zutelako. Lehen ahalke-iturri.

Oroitzen naiz eskolan hasi aurreko udan, amak anaia eta biok bildu gintuela erreka erdiko uharte hertsian, generoen erabilpenaren irakasteko. Ez genuen ulertzen zergatik mahaia feminoa zen eta zerua maskulinoa. Amak alabaina, Parisen egona baitzen sehi orduko euskaldun gazte anitzen gisara,

## Eskolaz

ez zuen nahi salbai eta atzeratu egi ager gintezen eskolara heltzean. Oraindik ere zubiaren gainetik pasatzen naizenean, behialako eszena ikusten dut, atzo balitz bezala.

Herrian hiru eskola baziren. Oragarr zabala da eta auzo bakoitzak berea bazeukan. Argazkietan azaltzen denez, haur franko bazen. Uharanekoan ibiltzen ginen, etxetik kasik bi kilometrotan. Oinez edo bizikletaz gindoazen, saldoan. Eskolara joatea festa zen, festa are handiagoa eskolatik itzultzea. Bihurrikeriaz bihurkeria ginabiltzan, nolabait taldean, bakarka baino ausartago ginelako. Egia erran, laborari haurrontzat, eskolako orduak baserriko lan dorpeetarik askatzen gintuzten. Baina eskolatik landa ardika joaten ginen, edo behi zain, edo zerritegi garbitzen, hau baitzen zereginik likitsena!

Eskolako argazki apurrak begiratzeari gustatzen zait. Hor herrokan ginaudenen destinaua harrigarria zait. Gehienak Amikuze eskualdean berean plantatu dira eta hauen haurrek dituzte gaurkoan gure eskola ohiak betetzen.

Ez zuten estudio luzerik egin: hamasei urteetan utzi, sehi edo mutil has, ezkondu eta familiatu. Orduko Euskal Herrian, ikasketetan higitzea alferkeria zen, lanaren ez maitatzea hots. Gure gurasoek bazuten ideia fermu bat: zazpi haurrek behar zuten baccalaureat gaintitu eta halaz, adina baino haratagoko ikasle ginen, auher fama areagotuz.

Uharaneko eskolan liburutegi hurria bazegoen. Irudi zait hanko liburuak oro, behin edo berritan, irakurri nituela. Jack Londonen nobelak, Ivanhoe, eta Pierre et Françoise sail osoa. Liburuek erakarri naute betidanik: ardi edo behi zain liburua eskuan nindoan. Arrastxarra nintzen matematiketan eta haiek neri ariketak egitearen truke, nik neure lau maila kideen frantseseko erredakzioak izkiriartzen nituen. Euskararekin topo egin aitzin, erdaraz idazten nuen.

Uharaneko eskolan errientsak *écrivain public* bat baizik ez nintzela leporatu zidan behin. Funtsean hori bilakatzeari zen neure ametsa. Eta amets zahar horrekin darrait. •



**EHUn aurreneko aldiz izena ematen duten ikasleen % 40 euskarazko adarrean matrikulatzen da. Irakasleetan, aldiz, herenak soilik daki euskaraz.**



Ane Monna, Oskola eta Karramarroi Euskal Herriko haurren maskotak dira. Behin Kantauri itsasotik heldu ziren eta bertako umeak ezagutu ondoren haiekin bizitzen gelditzea erabaki zuten. "Morgan Pirata gaiztoarekin" izandako abenturaren ondoren istorio berri batekin datozkigu.



Antzeslan musikal hau bi formatutan aurkezten da: formatu handian eta txikian. Bietan, txotxongiloak eta tamainu naturaleko pertsonaiak agertzen dira, argudioa eta edukia oso antzekoak direlarik. Formatu handikoan 12 hurrek hainbat eratarape hartzen dute: dantzatzen, bertsoetan, hitz egiten... Koloretsuagoa eta ikusgarriagoa da.



## Gazteentzako Motibazio Saioak

Euskaraz hitz egiteko eta euskara baliatzeko motiboez, zergatiez eta arrazoiez hausnartzeko

DBHko 4. mailatik gorakoentzat

## Asko egin dezakete hezitzaileek

Eskola orduraz kanpo metodo bat eta estrategia-sorta bat eskaintzea, haur eta gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko

Aisiako begiraleentzat, entrenatzaileentzat...

## Lagun arteko hizkerarekin jolasean

Gazteek, hizkuntzarekin jolastuz, euskarazko lagunarteko trikimailuak bereganatzeko

DBHko 2. mailatik gorakoentzat

## Gurasoentzako ikastaroa

Hizkuntza-transmisioan duten garrantziaz ohartarazteko eta lagungarri izango zaizkien ideiak emateko

7 urte arteko haurren gurasoentzat

# ikastaroak!



Ttakun Kultur Elkarte • Tel.: 943 360833 / 371448  
zerbitzuak@ttakun.com • www.ttakun.com